

ALBISTEA!!!

Antzerki dramatikoa bi ekltalditan
Rafael Mendizabalek egina

PERTSONAIAK: (AGERPEN ORDENAN)

JAIME: Aduana agentea. 45 urte

KARMEN: Jaimeren emaztea. 35 urte

JUAN: Jaimeren jefea eta koinatua, zoratua. 45 urte

ADRIANA DEL TESO: Kazetaria

JULIO GALLOSO: Modako abeslaria

Gaur eguneko garaia

Ekintza Polanco senar-emazteen egongelan ematen da. Hormak eginak egon behar dute sakonean leiho haundi bat agertzeko eran, eskuinean ate bat sukaldera doana, eta ezkerrean beste bat bainugelara eta beste gela batzuetara ematen duena. Lehen ekitaldiko argi itzaltze bakoitzean hormak era egokian itxi behar dira, lehen ekitaldiko bukaeran irteera bakar bat bezala enmarkatzen dutelarik. Horretarako argia erabili behar da.

Oihala altxatzerakoan egongela hutsik dago. Giltza hotsak entzuten dira eta bapatean Jaime sartzen da. Bere itxura egokia da, erdi mailako exekutibo batena, lurrean uzten duen maletatxo bat darama eskuan. Ez dirudi umore onean dagoenik.

KARMEN: (SUKALDEKO ATETIK BURUA AZALTZEN DU) Zu al zara?

JAIME: Nor nahi duzu ba izatea!

KARMEN: (GELAN GELDITZEN DA) Neskatoa nire anaiaren etxean dago bazkaltzen, eta Juan gurekin geratuko da bainugelara dagoela uste dut.

JAIME: Orduan bihar arte ez dut neskatoa ikusiko.

KARMEN: Ez, gaur lekua trukatu dugu.

JAIME: Badakizu umeak etxean bazkaltzea gustatzen zaidala.

KARMEN: Ba eskerrak Axunekin geratu den. Horrela gelako ikasle guztiei azterketa egin ahal izan diet.

JAIME: Gertatzen dena zera da, goizetan momentu batean bakarrik ikusten dudala eta gauez iristen naizenean ohean egoten dela, eta orain bazkaltzerakoan ere ez badut ikusi behar, zuk esango didazu... edo arraroa egiten zaizu esaten dudana.

KARMEN: Arraroa egiten zaidana doinu zakar horretan esatea da, eta gehiago orain dik asteen bizpahiru aldiz geratzen dela jakinda, dena dela beti baimena eskatuta joaten da.

JAIME: Ba, hurrengoan nirekin kontsultatu.

KARMEN: (TRUFATUZ) Bai gizona, barkatu.

(JUAN SARTZEN DA)

JUAN: Eztabaidan ari bazarete bainugelara noa berriro.

KARMEN: Ez dio axolarik, alabarenganako ikusmina sortu zaio bapatean orain.

JUAN: Baina, ez al duzu ba gaur goizean ikusi?

JAIME: Utzi zazu kontu hori.

KARMEN: Oso ongi iruditzen zait, hobe da isiltzea txorakeriak esatea baino.

JUAN: Zer berri dago bulegoan?

JAIME: Zuk zeri deitzen diozun berria, hortxe dago kontua. Han betiko nahaste-borrasteak, baina zu ez zara agertzen eta ez duzu ezer jakiten.

JUAN: Aizu, aizu, ez dizkidazu ba oporrak izorratu nahiko. Zuek aurreko hilean Mallorkan izan zinetenean nik ez nizuen eragozpenik ipini.

KARMEN: Uztazu, Juan. (ESERI EGITEN DA) Eta orain jakin al liteke zergatik zauden haserre?

JAIME: Ni haserre?

KARMEN: Aizu, garai hauetan ez nauzu ba engainatu nahiko, tira, esan ezazu esan beharrekoa, bestela bazkaria izorratuko diguzu-ta.

JAIME: Bueno ba, haserre nago, bai.

KARMEN: Azkenean... esan du.

JAIME: Baina lanarekin ez du zerikusirik.

KARMEN: Orduan esan zenezake, agoantatzen ez dizuedan gauza bakarra bulegoko arazoak etxera ekartzea bait da. Nik neureak Institutuan uzten ditut.

JAIME: Julio Gallosorekin gogoratzen al zarete?

KARMEN: Ahaztuta banengoen ere, memoria argitzeko errebista hauek denak hemen hemen dauzkat; hori Felipe Gonzalez bera baino gehiago azaltzen da.

JUAN: Abeslaria?

JAIME: Nor izango da bestela, Salamanka Auzoan jaio zela egunkarietan esaten duena, bere ama idazlea zela eta bere aita Marinako Kapitaina.

KARMEN: Eta horrek zer ikusia dauka, ba, hemen?

JAIME: Gauza batzuetarako laguna izaten bada, beste batzuetarako ere izan egin behar dela, gehiago oraindik, azkeneko aldiz elkar ikusi genuenean lagun batzuk ganbak jaten ari ginen, eta erdiak baino gehiago berak jan zituen.

JUAN: Ba, hori jasateko bai lagun jatorra izan behar dela.

KARMEN: Baina pentsatzen dut haserraldi hori ez dela izango ganba haien kontuarekin gogoratzeagatik.

JAIME: Gaur Madrila iritsi da baina...

KARMEN: Eta zer...?

JAIME: Kaka zaharra! Ezagutzen dudala eta historia hau bera kontatu diet bulegoko bi neskei, eta kantaldi bat aireportuan bertan zeukala eta, konbentzitu egin naute beraiekin joan nadin, ea hura aurkezteko aukerarik izaten nuen.

KARMEN: Eta ez dizu kasurik egin...

JAIME: Baina gerra zirudien, ordea, hark! Enuen sinistuko inoiz horrelako tipo bati harrera egiteko hainbeste inozo bilduko zenik.

KARMEN: Ez dakit konturatu zaren, baina diozun inozo horien artean zeunden zeu ere.

JAIME: Baina ni neskei laguntzeagatik joan naiz, bestela nondik nora joango nintzen ni haruntza.

KARMEN: Bueno, eta zer.

JAIME: Ba guardia ezagun batzuei esker lehenengo ilaran jarri ahal izandu garela, eta han ikusten gaituzu gu hirurok.

KARMEN: Ez, han ez zaituztet ikusten, zuk gauza horietarako beti kanpokoak eramaten bait dituzu.

JAIME: Baina, emakumea, ezer enekien ordea.

KARMEN: Bueno, baina jakin nahi duguna zera da zergatik haserretu zaren.

JAIME: Haserretu naiz behin ere enuelako pentsatuko tipo bat horren «jilipolla» izan zitekeenik, eta gutxiago oraindik duela bost urte mixeria gorrian bizi zen bat, ikusi egin behar zenuten jendeari eskua ematen, Ingalaterrako Erregina zirudien.

JUAN: Bueno, esaten dute bai maritxu horietako tankera pixka bat baduela.

JAIME: Ba nik dakidanez erabat bestelakoa da, mutikoak ginenean behintzat neskazale fama zuen, gertatzen dena da kutsu hori artisten bizimoduak eransten duela.

KARMEN: Aizu, edo azkarrago kontatzen duzu edo enpanada harria bezain gogorra jan beharko dugu. Eta nik ordu bete barru klasean egon behar dut.

JAIME: Ba kontatzen dizuedanean ikusiko duzue arrazoia neukan ala ez, berehala orkesta jotzen hasi da, eta ez dakizue nolako garrasiak, emakumeak erotuta bezala, eta hori izugarrizko hotza egiten zuelarik. Baina badirudi bera konturatu egin dela ni han nengoela, eta horregatik edo kasualidadez, guregana hurbildu da, ondoan nituen bi neska txolinak ia txorabiatu egin dira, bera ia orduero ipintzen duten

abesti hori abesten ari zen «Kaixo lagun, nola zaude» edo antzeko zerbait, eta esaldia esan duenean nire al boan eseri da, eta nik zer egingo nuen ba, duela hogeitamar urte ezagutzen dut eta, besarkada bat eman diot eta aizu, bere ama hil banu bezala.

JUAN: Baina bere ama han al zegoen ba?

JAIME: Ez zaitetz zoroa izan!

JUAN: Aizu errespeto gehiago, zure jefea naiz eta.

KARMEN: Bion artean nazka-nazka eginda naukazue.

JAIME: Bukatzera noa, ba begiratu txar bat egin dit eta zutitagin da eta joan.

KARMEN: Eta izorratzen zaituena bi neskatxen aurrean beste edozein bezala tratatzea izan da.

JUAN: Gainera musika bukatzen arituko zen.

JAIME: Bai, zakurraren biolina arituko zen.

KARMEN: (BROMAN) Jesus, hori da esne txarra!

JAIME: Berehala etorri dira bi tipo erretxin eta dokumentazioa eskatu didate.

KARMEN: Zuri?

JAIME: Entzuten duzuen bezala.

JUAN: Eta zuk zer egin duzu?

JAIME: Ba eman txoropito batek bezala.

KARMEN: Oso ondo esana hori.

JAIME: Gero, nire izena eta idazten ari zirenean bapatean pentsatu dut, baina tipo hauek zeintzuk dituk, txispa dariola jarri naiz eta esan diet «Benga zuen dokumentazioa!» eta ia-ia muturjoka bukatu dugu.

KARMEN: Bueno, bueno! Txorakeria horregatik?

JAIME: Txorakeria zuri irudituko zaizu, edo normala iruditzen zaizu horrela hankapean hartzea?

JUAN: Baina zeintzuk ziren?

JAIME: Nik ze arraio dakit ba! gaur egun eramaten diren ordena zerbitzuko horietakoak izango ziren, hori ez zen gertatzen Frankoren garaian ere.

JUAN: Horretan arrazoa daukazu, bai.

JAIME: Eta gainera bultzaka bota nahi izan gaituzte, eta gehiago izorratzeko beste bi txolinak barrez lehertu beharrean.

KARMEN: Ondo begiratuta ez zen gutxiagotarako zu, eta azkenean zer gertatu da?

JAIME: Ba, iskanbilarik ez sortzeagatik alde egin dugula, gainera jendea begira jartzen hasi da eta ez neukan jaleotarako gogorik, horregatik hemendik aurrera nigatik behintzat Julio Galloso hori joan daiteke popatik hartzera eta ez dut ikusi nahi etxe honetan bere diska bat bakarra ere.

KARMEN: Horrekin ez zaitetz kezkatu, etxerako ematen didazun diruarekin ez zait iristen tokadiskoko orratza aldatzeko haina ere.

JUAN: Zure senarra beti izan da xuhur samarra.

KARMEN: Baina entzun duzu lagunekin ganbak jateko badaukala. Nik berriz soldata arropa erosten gastatzen dut.

JAIME: Niretzat ere bai?

KARMEN: Baita ere, zuk neri ganbak ez erosiarren.

JUAN: Hurrengoan kilo bat ekarriko dizut.

KARMEN: Bueno, goazen ba bazkaltzera, ea tripa betearekin umore ona etortzen zaizun, gaur amerikanoak bezala jango dugu, plan modernoan.

JUAN: Ez zenituen, ba, hanburgesak ipiniko, e, badakizu bihotzerrea ematen didatela.

KARMEN: Ez al duzu entzun enpanada egin dudala?, bandejatan jan beharko dugulako esan dut amerikanoen hori, horrela gero biltzeko lan gutxiago daukat.

JUAN: Nigatik nahi duzun bezala, ia nahiago dut honela nire emazteak ipintzen dituen otordu handi haiek baino, Erdi Aroko afariak dirudite haiek.

KARMEN: Gainera nahi izanda ere ezingo nuke gehiago, gogoan izan nire senarra enpleatu

bat dela, eta ni irakasle sotil bat.

JUAN: Enpleatua Ministro baten soldatarekin.

KARMEN: (BANDEJAK PRESTATZERA DOA) Bazkaria prestatzera noa.

(EGONGELATIK IRTETEN DA)

JAIME: (PENTSAKOR) Baina, posible ote da nazkagarri horrek niri ziria sartzea?

JUAN: Uztazu, gizona, ez duzu ba pentsatuko niri berriro ganbena kontatzea.

JAIME: Isildu zaitetz! Dena txantxetan hartzeko mania zikin hori daukazu zuk.

JUAN: Eta nola nahi duzu hartzea, ba, ez duzu nahiko zurekin tiro bat hari ematera joatea, azken batean lotsagabe ziztrin bat baldin bada, berea ez da erru guztia, ikusi egin beharko litzateke guk zer egingo genukeen beso bakoitzean neska bana aukeran bagenu.

JAIME: Gehiena izorratzen nauena hauxe da: hainbeste aldiz gosea nire kontura ase duela eta orain ni barregarri utzi nauela, gutxienez esker oneko ager zitekeen. Bere lehenengo kitarra kuadrila osoak erosi genion.

JUAN: Jendea ahaztu egiten da gauza horiekin, orain galdetzen badiozu, zaude ziur, hobbyz hasi zela kantatzen esango dizu.

JAIME: Baina ez dizut ba esaten berak dioela aita barkuko kapitaina zela?, nik dakidana hauxe da, bere ama gure alboko etxeko atezaina zela, nahiz eta hori ezer txarra ez izan, eta gainera hobbyz hasiko zen, baina lehenengo diska grabatu arte nik badakit nolako gosea pasatzen zen etxe hartan.

(TELEFONOA JOTZEN ARI DA)

KARMEN: (OFF-EN) Hartazue zuek, nik eskuak koipez beteta dauzkat eta.

JUAN: Nik hartuko al dut?

JAIME: Bai, mesedez.

(TELEFONOA HARTZEN DU)

JUAN: Bai? Astuna zara benetan Nola diozu?..... (JAIMERI) Nire emaztea da, telebistan Julio Gallosorekin batera argazki batean agertu zarela dio. (JAIME PRESAKA ZUTITZEN DA TELEBISTA PIZTERA)

KARMEN: (ATEAN AZALDUZ) Zerbait gertatzen al da?

JUAN: Axun da, Telebistan zure gizonaren argazki bat ipini dutela dio.

KARMEN: Etzazu txorakeriarik esan.

(HIRURAK TELEBISTARA BEGIRA GERATZEN DIRA)

ESATARIA: Gaur goizean iritsi da Madrileko Aireportura Julio Galloso abeslari ezaguna. Pistan bertan, harrera egitera joan zaizkion «fans» askoren aurrean, errezital txiki bat eskaini du, zenbait telebisio katek jaso duena. Ekitaldi horretan Jaime Polanco Lopez izeneko homosexual bat abeslariari musu ematera aurreratatu da, ordeneko zerbitzukoek eraman dutelarik.

(HIRUREK ELKARRI BEGIRATZEN DIOTE)

Hotelera iritsitakoan zerbitzukoek atetik sartu behar izan zuen, ez bazuen nahi...

JAIME: (ITZALI EGITEN DU) Baina, zer dio putaseme honek?

JUAN: Koño!

KARMEN: Nik ez dakit ongi entzun dudan.

JAIME: Oso ongi entzun duzu. Julio kabroi zikin horri burua irekiko diot, eta bi zaindariei arrautzak moztuko dizkiet.

KARMEN: Lasaitu zaitetz, Jaime, egin behar duzuna da oraintxe bertan joan eta albistea zuzendu dezatela.

JAIME: Irentsi erazi egingo diet.

JUAN: Nahi al duzu nik laguntzea?

JAIME: Ez da beharrezko, lehenengo Hotelera joango naiz eta gero Telebistara.

KARMEN: Lehenengo jan(t)zazu, tripa hutsik joateak ez dizu batere bentajarik egingo.

JAIME: Baina nola arraio nahi duzu ni gose izatea! Ez al duzu entzun esan dutena?

KARMEN: Zuk bezalaxe entzun dut, baina badakigu gezurra dela, zuzenduko dute eta pakea.

JAIME: Eta zein aurpegirekin lan egin behar dut nik, nire izen deiturak telebistan esan ondoren.

JUAN: Daukazu arekin, beti lan egin duzunarekin. Gauzak ez itzazu bere lekutik atera, ongi iruditzen zait joatea, baina lasai, ez zure onetik aterata.

JAIME: Zin dagizut aurrean ipintzen bazait burua irekiko diodala.

KARMEN: Eta gero kartzelara? Zuzendu arazi ezazu albistea eta ahaztu betirako arazo hau, tira, zoaz lehenbaitlehen.

JUAN: Benetan ez duzu nahi nik laguntzea?

JAIME: Ez da beharrezkoa, nahiago dut Karmenekin geratzea.

KARMEN: Aizu, hau ez da haurra izatea, e, norbaitek nirekin gelditu beharra izateko, gainera, esan dizut berehala atera behar dudala institutu aldera.

JAIME: Era guztitara nahiago dut bakarrik joan.

(TXAKETA IPINI ETA ETXETIK IRTETEN DA)

KARMEN: Hauxe da ba izorratzea, hainbeste aldiz hitzegin du gizon horretaz benetako laguna balu bezala, eta orain begira nolako buruaustean sartu duen.

JUAN: Istilurik ez dezala sortu behintzat, hori da beharrezkoena.

KARMEN: Bazkalduko al dugu?

JUAN: Niri jateko gogoia ere joan zait.

KARMEN: Bai, niri ere bai, eta amorrazioa ematen dit, gero klasean goseak harrapatzen nau eta aitzaki bila ibili behar izaten dut zerbait jatera ateratzeko.

(TELEFONOAK JOTZEN DU)

JUAN: Axun izango da berriro.

KARMEN: Utzi, nik hartuko dut. (TELEFONOA HARTZEN DU) Esaidazu Axun... Zer esaten duzu?..... (LELOTUTA BEZALA GERATZEN DA ETA TELEFONOA UZTEN DU)

JUAN: Nire emaztea ez al zen?

(KARMENEK BURUAZ KEINU BAT EGITEN DIO EZETZ ESANEZ)

JUAN: Zerbait gertatzen al zaizu? (KARMENEK EZ DU ERANTZUTEN) Baina, nor zen?

KARMEN: (LELOTUTA) Ez dakit, emakume bat.

JUAN: Eta zer esan du?

KARMEN: Esaiozu marikoi horri txikiratu (irendu) egingo dugula.

ARGI ITZALTZEA

BIGARREN AGERRALDIA

Aurreko agerraldiko dekoratu berbera. Hormak sakonean itxi egin behar dira leihora hurbilduz.

Oihala irekitzean, Juan bakarrik dago. Bost ordu pasa dira.

KARMEN: (SARTUZ) Oraindik ez al da etorri?

JUAN: Oraindik ez. Eta asko luzatzen bada, nik joan egin beharra daukat.

KARMEN: Ze ordu daukazu, Juan.

JUAN: (ERLOJUA BEGIRATUZ) Zazpiak eta laurden.

KARMEN: Ez al duzu uste asko luzatzen ari dela.

JUAN: Ez, emakumea. Gauza horiek denbora asko eramaten dute.

KARMEN: Istiluren bat armatu ote duen beldur naiz, badakizu ze jenio bizia duen. Era guztitara ere trafikoa oso zaila dago. Institutotik etortzen ordubete baino gehiago galdu dut.

(GILTZA HOTSA ENTZUTEN DA)

KARMEN: Azkenean!

(JAIME ETXE BARRURA SARTZEN DA)

JUAN: Eginda?

JAIME: Eginda zer?

JUAN: Zer izango da ba, konpondu al duzun arazoa.

JAIME: Konpondu esaten duzu? Ero-kontu bat dirudi honek. Juliorekin ez dut hitzegiterik ere izan. Nik ez dakit zer gertatuko den Estatuko Jefe bat iritsitakoan, baina ez dut uste istilu erdirik ere sortuko denik.

KARMEN: Bere gelara joan behar zenuen zuzenean.

JAIME: Hoteleko laugarren planta osoa hartuta dauka, eta irten orduko hiru zaindari topatzen dituzu igogailuan.

KARMEN: Baina ez al diezu esan zertara joan zaren? ¹

JAIME: Bai noski, esan diet, eta berehala etorri da norbait, managerra uste dut, baina itxuragatik ez dut uste garrantzi haundikoa zenik, rollo luze bat sar tu ondoren beste bat azaldu da hobeto jantzita, horrek bai norbait zela ema ten zuen, eta berriro hala! historia bera kontatzera.

KARMEN: Baina, esan nahi al diguzu zer esan dizun?

JAIME: Ez daukala inolako garrantzirik.

KARMEN: Nola ez daukala garrantzirik!

JAIME: Entzuten ari zaren bezala, eta hori dena tipo bat argazkiak ateratzen aldamenean genuela, guzti hori periodisten kontua omen dela, eta seguru dagoela Juliok benetan sentituko duela, baina ikusteko kontu hori ezta amesetan ere, egun gutxi egongo dela eta erabat okupaturik dagoela, hori bai, dena oso ego ki esanda, bizkarrean kolpe txiki batzuk emanez.

KARMEN: Zu ezagututa, ez dakit nola agoantatu duzun.

JUAN: Ganben kontu hori esango zenion noski.

JAIME: Ez zaitetz txantxetan aritu!

JUAN: Arrazoi duzu, barkatu.

KARMEN: Orduan, zure lagunak edo dena delakoak, ez du ezer egitea pentsatzen.

JAIME: Jakin nahi nukena zera da, bera ezertaz enteratu ote den, ziur nago ezetz.

KARMEN: Eta telefonoz deitzen badiozu?

JAIME: Alperrik izango litzateke, ez dizkiote deiak pasatzen.

KARMEN: Herri honetan gertatzen dena sinestezina da, kalumnia bat botatzen dizute eta ez daukazu inola ere defenditzerik.

JAIME: Baina ez da hori bakarrik, Telebistara ere joan naiz.

JUAN: Hor behintzat ongi hartuko zintuzten.

KARMEN: Hala izango al zen...

JAIME: Hartu bai oso ondo hartu naute, hiru kontroletan esplikatu ondoren neskatxa rubia polit bat atera zait, eta nik esaten niona entzuteari ekin dio borondate guztiz, baina nik uste ni lasaitzearren egin duela hori.

KARMEN: Baina gizona, ze makala zara kontatzen.

JUAN: Esplikatu ondoren pentsatzen dut zuzenketa bat egongo dela, ezta.

JAIME: Oraingoz airean geratzen da, hemen dauzkat (dakartzkit) hiru formulario betetzeko eta Erregistroan aurkezteko, eta hamabost eguneko epean erabakiko dute zuzenketarik egongo den ala ez.

JUAN: Tok Demokrazia!

(TELEFONOAK JOTZEN DU ETA JUAN EK ETA KARMENEK ELKARRI BEGIRATZEN DIOTE URDURI)

KARMEN: Nik hartuko dut. (HARTU ETA BEREHALA) Ez da hemen, konfunditu egin zara.

JAIME: (HARRITUTA) la ez diozu utzi esaten zein zen.

JUAN: Telefonoak gaizki egongo dira, arratsalde guztian ari dira tabarra ematen.

(TELEFONOAK BERRIRO JOTZEN DU)

KARMEN: (BERRIRO HARTZEN DU) Ez da hemen, konfunditu egin zara.

JAIME: Ez al duzu Konpainiara deitu?!

JUAN: Ez zaitez urduri ipini.

JAIME: Eta nola arraio nahi duzu ipintzea!, atzo gizon normal bat nintzen, lan normal batekin, familia normal batekin, emakume eder bat pasatzean atzera begiratzen nuen, eta orain atzera begiratzen badut besteek ikusteagatik egiten dudala iruditzen zait.

KARMEN: Ez itzazu gauzak bere lekutik atera.

JUAN: Gainera horrela jarrita ez duzu ezer konpontzen.

JAIME: (KEZKATUTA) Gure alabak ikusi ote du?

JUAN: Nire emazteak ez ziola utziko uste dut.

KARMEN: Eta galerazi ezin izan badio? Hain ustekabea gertatu da dena.

(TELEFONOAK BERRIRO JOTZEN DU)

KARMEN: (OSO URDURI) Nik hartuko dut... (HARTZEN DU) Ez, berriro gauza bera esaten dizut, konfunditu egin zara. (IZKUTUKA TELEFONOA DESKOLGATUTA UZTEN AHALEGINTZEN DA ; BAINA JAIME KONTURATU EGITEN DA)

JAIME: Telefonoa deskolgatuta utzi duzu.

KARMEN: Ez naiz konturatu. (ONDO UZTEN DU)

JUAN: Oraintxe gogoratzen naiz, Telebistan badaukat nik lagun bat, nahi baduzu berarekin hitzegino dut ea zerbait egiterik daukan.

KARMEN: Ahalegintzearekin ez dugu ezer galtzen.

JUAN: Bulegora deituko dut, bere telefonoa lantokiko libretan daukat. (ZENBAKI BAT MARKATZEN DU)... Paki? Nire libretan begira ezazu Telebistako Encinas Jaunaren telefonoa bai, noski ikusi dugula lotsagarria da bai benetan, itxarongo dizut.

JAIME: Esaiezu beraiei esker izan dela.

KARMEN: Nola esango die, ba, hori; errua edozein gauzataz aprobetxatzen diren periodista horiena da.

JUAN: Esaidazu, (KARMENI) Karmen hartzazu zenbakia.... 247 35 64...

(KARMEN APUNTATZEN ARITU DA)

KARMEN: Hementxe daukat.

JUAN: Eskerrik asko Paki ez, gaur ez gara joango ez Jaime eta ez ni esango diot, eskerrik asko. (TELEFONOA UZTEN DU) Askok sentitzen duela esaten du.

JAIME: Horrekin dena konpontzen dela erantzun behar zenion.

JUAN: Neska gaixoa pasata dago. Orduan deitu egingo al diot?

JAIME: Zerbaitetarako balioko duela iruditzen bazaizu.

KARMEN: Nik uste besoak tolestatuta gelditzea baino hobe dela.

JUAN: (ZENBAKI BAT MARKATZEN DU) Encinas Jauna? Juan Miralles Jaunaren izenean... .. eskerrik

asko Luis?, zer moduz zaude, bai Juan naiz gutxi ikusten dugu elkar, bai, inportante bihurtu zarenetik ez duzu ezer jakin nahi lagunekin, aizu, gauza batengatik deitzen nizun, ez da batere atsegina izan, Telediaroan albiste bat eman dute Julio Gallosoren etorreraz bai, marikoiarena. (JAIMERI) Barkatu....

JAIME: Esaiozu bere hildakoen gainean kaka egingo dudala.

JUAN: (TELEFONOZ) Bueno, ba diozun hori nire koinatua da, eta marikoitik ez dauka ezer, gauza pila bat elkarrekin suertatze bat besterik ez da izan eta telefonoz esplikatzeko ordubete beharko nuke noski ba gizona, ziur egongo ez naiz ba, (AURIKULARRA ESTALTZEN DU) Eguerditik zentralita blokeatuta omen daukatela dio albiste horrengatik. (TELEFONOZ HITZEGITEN JARRAITZEN DU) Bai, izan da, baina inpreso batzuk eman dizkiote eta hamabost bat egun itxaron beharko duela esan diote erabakia hartu arte ohitura hala izango da, eta horrengatik deitzen nizun, zuk zerbait egiterik ba ote zenukeen ba Baina nola ez naiz ba seguru egongo!

JAIME: Hori da putasemea, hori! Esaiozu nahi badu bere emaztea bialtzeko.

JUAN: (AURIKULARRA ESTALIZ) Ez zaitetz astakirtena izan, gainera ezkongabea da. (TELEFONOZ HITZEGITEN JARRAITZEN DU) nire buruaz bezain seguru, baietz... Zer egiten zuen han?, ba kasualitatez haurtzarotik ezagunak direla Eta niri zer axola zait Julio Gallosori buruz jendeak gauza bera esatea! Jode, ez haserretzeko diozu!, zerbaitetan lagunduko diguzun asmotan deitzen dizut, eta inkisidore bat ematen duzu.

JAIME: Kolgatuiok behingoz telefono hori!

JUAN: (TELEFONOZ) Begira, uztazu, beste bide batetik saiatuko gara bai eskerrik asko, zerbait behar badut, deituko dizut. (TELEFONOA UZTEN DU)

KARMEN: Eta orduan zertarako deitu diozula uste du horrek?

JUAN: Entzun duzue, hau zuzeneko bere telefonoa zen, baina zentralita blokeatuta omen daukate zure izenaz galdetzen duen jendearekin.

(TELEFONOAK BERRIRO JOTZEN DU)

KARMEN: (TELEFONOA HARTZEN DU) Ez, konfunditu egin zara.

JAIME: Baina zer arraio gertatzen da telefonoarekin? Telefonoak erotu egin al dira ala?

JUAN: Esan dizu gaizki omen dabiltzala!

KARMEN: Lasaitu nahi al duzue? Bion artean zoratu egingo nauzue.

JAIME: Barkaidazu, baina hau gehiegi da niretzat, eta gainera telefono madarikatu hori jo ta jo etengabe.

JUAN: Beste posibilitate bat ere badago, egunkarietara iragarpen bat bidaltzea ordainduta albistea zuzenduz, eta bestela nik ez dakit zer egin litekeen, niri behin ere ez zitzaidan horrelakorik gertatu.

JAIME: Eta zuk zer uste duzu, niri egunero gertatzen zaidala?

KARMEN: Nik ez dut bidezkoa ikusten, beste gauzen artean esango dizutelako Espainiko Telebistakoek (Television Española-koek) zuzendu behar dutela.

JUAN: Horrengatik esan dut ba, besterik ez bada ordainduz.

KARMEN: Erremedioa gaitza bera baino okerragoa izango litzateke, lortuko genukeen gauza bakarra egun horretan etxean ez zeudenak ere enteratzea izango litzateke.

JAIME: Agian arrazoia daukazu, baina nik ez dut pentsatzen ezer egin gabe gelditzea.

JUAN: Badakizu zer esaten den, kaka zenbat eta gehiago nahastu orduan eta usain txarragoa.

JAIME: Orduan nahi baduzue gauza bere horretan utziko dugu, komunikabide batean esaten dizute marikoi bat zarela, izan gabe, eta egin litekeen guztia isilik ego tea da.

KARMEN: Egin beharra daukaguna da lasaitu, eta egia jakin nahi baduzue, ni gehiena kezkatzen nauena une honetan Karmentxu enteratu ote den jakitea da; zure emazteari deitzera noa jakiteko.

JUAN: Nahi baduzu nik deituko diot. (ZUTITU ETA BERE ETXEKO ZENBAKIA MARKATZEN DU) Axun? bai,

ni naiz, aizu Karmen kezkatuta dago bere alabak entzun ote duen bai bai
.....noski

KARMEN: (LARRI) Zerbait gertatzen al da?

JUAN: Bueno, gero deituko dizugu. (TELEFONOA UZTEN DU)

KARMEN: Zer gertatu da!

JUAN: Umeen txorakeriak, eskolumeren batek zerbait esan omen dio eta negarrez itzuli omen da etxera.

JAIME: Kabroi nazkagarriak! Etzaidazue esan ez dela erotzekoa hau.

JUAN: Badakizu umeak nolakoak diren, hitzegiteagatik hitzegiten dute, eta ez dira konturatzen zenbaterainoko mina ematen duten.

JAIME: Berarekin ipin nazazu.

JUAN: Ez dut uste bide zuzena denik telefonoz esplikatuta nahi izatea, hobe da itxaron eta gero esatea.

KARMEN: Juanek arrazoi du.

JAIME: Nire alabari zerbait gertatzen bazaio, agintzen dizuet putaseme hori akatu egingo dudala.

(TELEFONOAK BERRIRO JOTZEN DU ETA KARMENEK HARTZEN DU)

KARMEN: (MEKANIKOKI) Ez, konfunditu egin zara... barkatu, bai Karmentxuren ama naiz.... bai, zuk esango duzu (AURIKULARRA ESTALTZEN DU BESTEEKIN HITZEGITEKO) Umearen kolejiotik da bueno, badakizu dena gaizki ulertu bat izan dela eta argitu nahian ari gara Egun batzuetan faltatu?, ez dakit ba, kurtsoa ere galdu dezake-ta....

JAIME: Zer esaten du?

KARMEN: Itxaron momentu bat. (AURIKULARRA ESTALTZEN DU) Zuzendaria da, neskatoa egun batzuetan eskolara ez joatea hobe litzatekeela dio, badakigula umeak nolako gogorak (ankerrak) izaten diren, eta oso ezatsegina izan dela.

(JAIME ODOLTZARTURIK ZUTITZEN DA)

JAIME: Utzidazu niri! (TELEFONOA HARTZEN DU) Aizu, atso emagaldu hori!, ez daukazu zertan kezkatutik, nire alaba ez da berriro kolejio kakazu horretara itzuliko. (TELEFONOA BORTIZKI UZTEN DU)

KARMEN: Jainkoagatik, Jaime!

JAIME: Berdin zait zer esango duten!

JUAN: Astakirten samarra egon zara.

JAIME: Egin behar luketena da hobeto erakutsi eta txorakeriak bazterrean utzi.

KARMEN: Neskatoa zuk esaten duzun bezala nire alaba da, korrespondentziaz egin ez badugu behintzat, eta bere aita nolako gizona den jakingo duela uste dut.

JUAN: Nolako astakiloa esan nahiko duzu, nola aldatuko duzu ba kolejioz kurtso erdian.

JAIME: Ba etxean ikasiko du! Horretarako da bere ama irakaslea.

JUAN: Gure artean errietan hastea horixe bakarrik falta zaigu. Gauzak pentsatu egingo ditugu. Iragarpenarena bazterturik, albistea lau haizetara zabaltzea litzateke hori, formularioena, bizkorra ez bada ere egin egin beharko dugu.

JAIME: Formularioak sar ditzatela kabitzen zaizkien tokitik.

JUAN: Ba nik ez dut beste irtenbiderik ikusten.

(TELEFONOAK JOTZEN DU ETA JAIMEK HARTZEN DU ALDAMENEAN DAGO ETA)

JAIME: Nor da! (HARRITUTA BEZALA GERATZEN DA) Hori hire aita putasemeari esango diok! (KOLPE BATEZ UZTEN DU) (KARMENI) Horiek ziren hutsegiteak orduan, e??!!

JUAN: Arratsalde guztian ari dira deika.

KARMEN: Zer nahi zenuen, hori ere esatea? Lehendik gutxi daukazula iruditzen al zaizu?

JAIME: Orduan jendea hona deika ari da ni iraintzeko.

JUAN: Eta harritu egiten al zara? Jendea danetarako dagoela jakin behar zenuke.

JAIME: Bai jendea izorratzeko batez ere! Mekauen la letxe!

KARMEN: Nahikoa da, Jaime! Ez dakit konturatzen zaren, baina etxe honetan behin ere ez da entzun esaten ari zaren bezalako hitz zantarrik.

JAIME: Eta zer nahi duzu? Jolin bat esatea noizik eta behin?

KARMEN: Nahi dudana zu lasaitzea da, hau ez da zure arazoa bakarrik. Ulertzen dut zu horrela egotea, baina Juanek arrazoa dauka, hankasartze honek zenbaterainoko garrantzia daukan ikusi behar da lehenengo eta gero beharrezkoa bada abokatu batekin hitzegin. Inporta ez bazaizue neska zuen etxean geratuko da egun batzuetan. (JUANI)

JAIME: Ezta pentsatu ere!

KARMEN: Zer nahiago duzu, deskuido batean telefonoa har dezala eta entzun dezala esaten dutena?

JUAN: Karmenek arrazoa dauka, eta badakizue nire etxean zuekin bezalaxe egongo dela.

JAIME: Eta bihar kolejioz aldatuko duzu.

KARMEN: Ez dugu ezer egingo zer gertatu behar duen jakin arte.

JAIME: Eta orain kuriosoena zera da, nik bakarrik ez dudala jasan beharko hau, nire alabari ere tokatzen zaiola.

KARMEN: Gauzak datozen bezala hartu behar dira, okerragoa izango zen erremediorik gabeko ezbeharren bat gertatu izan balitzaigu.

JAIME: Eta hau zer da, loteria ala?

KARMEN: Hau da zerbait aurre. eman behar dioguna.

JUAN: Horrelaxe gustatzen zait adorea ez galtzea.

KARMEN: Indarrez urkatu egiten dute.

JUAN: (ZUTITU EGITEN DA) Hobe izango dut joatea, zure alabari esan egin beharko zaio zergatik geratzen den egun batzuetan gurekin. (JAIMERI) Eta zu ez zaitez kezkatu, ia emakume bat da, eta oso ongi ulertuko du.

JAIME: Musu bat emaiozu nire partetik.

JUAN: Bai gizona, eta lasai mundua ez da eroriko eta. Gero arte Karmen. (MUSU BAT EMATEN DIO) (IRTE ERAKOAN ESATEN DIO JAIMERI) Eta hurrengoan norbaitek ganbak jaten badizkizu, eskua moztu.

(ETXETIK IRTETEN DA)

KARMEN: Nahi al duzu kafe bat prestatzea?

JAIME: Bai, eskerrik asko.

(SUKALDEAN SARTZERA DIHOANEAN TELEFONOAK JOTZEN DU;
BIEK ELKARRI BEGIRATU ETA
HARTU EZ HARTU ERABAKI EZINIK DAUDE)

Bigarren argi-itzaltzea

HIRUGARREN AGERRALDIA

Dekoratu bera. Hormak gehiago itxi dira. Sentsazioa orain larritasunarena da. Jaime eszenan. Bere itxura zaindugabea da, egun batzuetako bizarrak eta korbata eroriak utzikeriaren sentsazioa ematen diote. Bere inguruan errebista (aldizkari) mordo bat lurrean. Karmen dator sukaldetik.

KARMEN: Hau dena pixka bat bildu behar zenuke, Juan iristear dago.

JAIME: (ZAKARKERIAZ) Eta horrek zer axola dio!

KARMEN: Batere ez, nire anaia delako, baina ez dut uste beharrezkoa denik txerri batzuk bezala bizi garela ikustea.

(KARMEN LURRETIK ERREBISTA BATZUK HARTZEN HASTEN DA)

JAIME: Dauden tokian utz itzazu!

KARMEN: Nigatik nahi duzun bezala. (LURRERA BOTATZEN DITU) Ez al zara aspertzen horiei begira?

JAIME: Pozik egon behar zenuke horren senar famosa edukitzeaz, nik uste azkenaldi honetan Isabel Preisslerri ere ez diotela hainbeste orrialde eskaini.

KARMEN: Lehendik ere nahiko larrituta ez nagoela iruditzen bazaizu, jarraitu nahi baduzu nire kontura lasaitzen.

JAIME: Ez al dut ba egia esaten?, lurrera begiratu besterik ez daukazu, «Hola», «Diez Minutos», «Lecturas», eta beste guztietan ni titularretan, «Marikoi bat modako abeslaria besarkatu nahian».

KARMEN: Zuzendu araziko duela esan du abokatuak.

JAIME: Posible da hemendik hiru edo lau urtetara gutxi gorabehera zure senarra ospetsu bihurtzea berriro. Imajinatzen al dituzu titularrak? Jaun-andreok, duela bost urte eman genizuen albiste hartan, txoroa esan genuen tokian txoria esan nahi genuen.

KARMEN: Ez diot grazirik bilatzen.

JAIME: Badakizu zergatik?, ez daukalako.

KARMEN: Horrela jarraitzen baduzu, zu bakarrik ez, gu ere erotu egingo gaituzu, eta kezkatu nago, atzo Zuzendariak deitu zidan deskantsurik behar al nuen galdetzeko.

JAIME: Barkatu, ahaztuta neukan emakumeok isilik sufritzen duzuela, nik tamalez ezin diot horretan pentsatzeari utzi.

KARMEN: Nik ere ez, eta horrek nire lanean eragin handia dauka.

(ATEKO TXIRRINAK JOTZEN DU)

KARMEN: Neuk irekiko dut, Juan izango da.

(ATEA IREKI ETA JUAN SARTZEN DA)

JUAN: Zer moduz zaude? (MUSU BAT EMATEN DIO)

JAIME: (??) Nola nahi duzu egotea, hau dena agoantatzen nazkatuta.

KARMEN: Eta ez banago ere halaxe bukatuko dut.

JUAN: Telefono zenbakia aldatu al dute?

KARMEN: Hala uste dut, atzotik ez gaituzte molestatu.

JUAN: Modu bakarra zenbaki pribatu bat ipintzea zen, zuek eta abokatuak bakarrik daukazue, hain zuzen deitu al dizue?

JAIME: Bihar aurkeztuko ditu gure eskabideak, eta hemendik bi edo hiru urtetara erabakiko dira gutxi gorabehera, hori kontuan eduki gabe Epaitegi Gorenera jo dezaketela.

JUAN: Baina garrantzizkoena erreakzio bat ikustea da, bestela kokilduta zaudetela pentsatuko lukete.

JAIME: Ba argitu iezu ez nagoela, nagoena da potrotaraino eta nazkatuta hainbeste esne txar eta hainbeste kabroirekin. Irakurri al duzu Adriana horrek ipintzen duena?

JUAN: Lehenengo demanda bere aurka doa eta garesti aterako zaiola zin egiten dizut»

KARMEN: Zerbait pertsonala bezala hartu duela dirudi.

JAIME: Eta txarrena da ondo idazten duela.

KARMEN: Urde bat da!

JAIME: Dena dela ulertzen dut horrela ezin dudala jarraitu.

KARMEN: Nik utzi egingo zaituztet, gauza asko daukat egiteko.

(SUKALDEAN SARTZEN DA)

JAIME: Bihar lanera joatea pentsatu dut.

JUAN: Horrexetaz hitzegin nahi nizun hain zuzen.

JAIME: Ez daukazu ezer esan beharrik, badakit egun dexentetan hutsegin dudala, baina ulertuko duzunez, eneukan adorerik inora joateko

JUAN: Nola ez dut ba ulertuko, neuk ere dena bizi izan dut eta, hortara noa, itzultzeko presarik ez daukazula esatera.

JAIME: Eskerrik asko, baina gauza hura gertatu zenean hamar mila gauza neuzkan egiteko, eta oraindik ere nire mahai gainean jarraituko dutela pentsatzen dut.

JUAN: Ez ba, Torralbok bere gain hartu ditu zure arazoak eta dena egunean ipinita dauka.

JAIME: Zer esan nahi duzu?

JUAN: Gure bulegoa nolakoa den jakinda etzenuen esperoko bezeroak isilik egotea, merkantzia batzuk galkorrak ziren eta beste batzuk ere ezin ziren atzeratu.

JAIME: Bai, noski. Era guztitara nahi dudana zera da niretzat lan asko prestatzea, zerbaitetan aritu beharra daukat beti gauza berean ez pentsatzeko.

JUAN: Zuk behar duzuna oportetara joatea da, eta Karmenek ere bai, eta neskatoarekin ez zaitzete kezkatu, nire etxean oso ondo dago.

JAIME: Baina oporrak lehengo hilean hartu genituen ordea.

JUAN: Eta beste batzuk ez al zaizkizu ondo etorriko?, esan, porru eginda egon behar duzu.

JAIME: Gezurra iruditzen bazaizu ere erabat bestaldera da, ezer egin gabe aspertuta nago, bost egun daramatzat etzanda eta bada ordua altxatzeko.

JUAN: Setatsu ipini zarenez egia esango dizut, Jaime. Esan nahi ez banizun ere gertakizun hau izugarri zabaldu da, eta okerreña emakume kazetari hori hotelean suertatzea izan da zu Julio ikustera joan zinenean, nobela antzeko bat egiten ari da jendeari hau dena ahazten uzten ez diona.

JAIME: Baina zuk badakizu zertara joan nintzen.

JUAN: Niri ez didazu esplikaziorik eman behar, baina besteena ezberdina da, abokatuak berak otsoaren ahoan sartzea bezalaxe izan zela dio, eta zuk laguna diozun hori eta kazetaria hortaz baliatu dira berriro ere titularretan ateratzeko.

JAIME: Eta orduan zer nahi duzu nik egitea, edo lanera ez joateko eskatzen ari zara.

JUAN: Denbora batez deskantsua hartzeko aholkua ematen ari natzaizu.

JAIME: Eta nahi ez badut?

JUAN: (TXANTXETAN BEZALA) Behartu egin beharko zintuzket, etzazu ahaztu nire enpleatua zarela.

JAIME: Ez nago ahaztuta.

JUAN: Broma bat bezala hartzazu, baina egia da Jaime, egun batzuetarako joatea zenukete onena.

(JAIME ZUTITU EGITEN DA KARMENI DEITZEKO)

JAIME: Karmen!... Karmen!...

(KARMEN SARTZEN DA)

KARMEN: Zer gertatzen zaizue?

JAIME: Zuk hau entzutea nahi dut.

JUAN: Ez daukazu zertan esplikatzen, lehendik hitzegina geneukan.

(JAIME EROTUTA BEZALA IPINTZEN DA)

JAIME: Orduan orain nire izkutuan aritzen zarete kontutan, noski, lepradunak ez du ezer jakin behar azken momenturarte.

KARMEN: Etzazu horrela hartu, Juan nire anaia da eta guretzat ona besterik ez du nahi.

JAIME: Enazue inozotzat hartu, nik ez dut inolako deskantsurik behar, behar dudana familia normal bat da, emazte normal bat, eta koinatu normal bat, eta ez nire izkutuan hitzegiten duen zoro pandila bat.

KARMEN: Ez daukazu hori esateko eskubiderik, Juanek hasieratik bere indar guztiak guri laguntzen ipini ditu.

JUAN: Uztazu, Karmen.

KARMEN: Ez dut utzi nahi! Oraindik badirudi gurea dela errua gertatu dena gertatzeko, eta nazkaturik nago iada.

JAIME: Ba joan zaitetz nahi baduzu!, eta bide batez eraman(t)zazu zure anai inutil hau.

JUAN: Inutil honek lana eman(t)zizun behar zenuenean.

JAIME: Eta ederki zupatu nauzu, ez daukazu konparatu besterik ni iritsi baino lehenagoko eta geroko zenbakiak.

KARMEN: Isildu nahi duzue biok?

JUAN: Hobe izango da, bestela gero ahaztu ezingo genituzkeen gauzak esango genizkioke elkarri, nahikoa dugu kanpokoekin orain gure artean dena txikitzen hasi gabe.

JAIME: Nik lanera itzuli nahi dudala bakarrik esan dut, baina nahiko ona ez naiz nonbait.

JUAN: Inork ez dizu esan lanetik botata zaudenik, denbora pixka bat behar dugula bakarrik gertatutakoa ahazteko, zu zerorri ere ez zinateke gustora egongo, zure lana bezeroen aurrean egitekoa da, eta edozein keinu, arraro irudituko balitzaizu, gaizki hartuko zenuke.

JAIME: Gurekin harremanetan dauden bezeroak aspaldiko ezagunak ditut, eta ez dut uste ezer demostratu behar diedanik ezertaz.

JUAN: Ez nizun esan nahi, baina iadanik norbaitek broma txarren bat egin digu.

JAIME: Eta zuri gustatu egiten zaizu, noski.

JUAN: Etzaidazu hori esan!, nire aitarekin ere ibili zen bezero batekin hautsi dut gaur eta, eta dena zuri buruz esandako hitz batzuen gatik izan da. Ez diot barkamenik eskatzeko aukerarik ere eman, eta etzaidazu oraindik esan zure aurkako marmarrak gustatzen zaizkidala, ez dizut utziko eta.

JAIME: Etzaidazu barregarrik eman, badakit lantokian nagoenetik bezeroek nahiago dutela nirekin hitzegin, eta hori ezin duzu barkatu.

JUAN: (KARMENI) Zure senarra erotzen ari dela us te dut.

JAIME: Denon artean erotu egin nahi nauzue, baina ez duzue lortuko. (ALTXA ETA KANPOKO ATEA IREKITZEN DU) Nigatik kanpora joan zintezke zure lantoki puñetero horrekin, eta ez zaitut gehiago hemen ikusi nahi, hau nire etxea den bitartean behintzat.

KARMEN: Ez daukazu eskubiderik.

JUAN: Utziozu lasaitzen, orain ez daki zer esaten ari den. Zerbait behar baduzu, badakizu non nagoen. (KARMENI MUSU BAT EMATEN DIO)

(ETXETIK IRTETEN DA)

JAIME: (DESAFIOKA) Gaizki iruditzen al zaizu?

KARMEN: Burutik joaten hasita zaudela iruditzen zait.

JAIME: Nire etxean gogoak ematen didana esango dut.

KARMEN: Nigatik nahi duzuna egin dezakezu, baina ez dut uste lagunak sobran daukazunik, horrela bidean uzten joateko.

JAIME: Hori da zuek uste duzuen, zure anai zerri horri erakutsiko diot nik ez dudala bera ezertarako behar, eta lurrean bi ostikada jo orduko nahi ditudan lan guztiak sortzen zaizkidala, eta zure anaiaren negozioarekin nik bukatuko dut, Jaime naizen bezalaxe.

KARMEN: Nigatik nahi duzuna egin dezakezu.

(SUKALDEAN SARTZEN DA ATEAREKIN KOLPE BAT EMANEZ)
(JAIMEK TELEFONO LISTINA IREKITZEN DU,

GERO ZENBAKI BAT MARKATZEN DU)

JAIME: Torrado Jauna?... Jaime Polancoren partetik... bai, itxarongo dut Asko luzatuko dela uste al duzu?, baie, berriro deituko dut.

(BESTE ZENBAKI BAT MARKATZEN DU)

Franco Jauna? Jaime Polancoren partetik... eskerrik asko, badakizu zein ordutan itzuliko den?... ederki, bihar deituko dut.

(BESTE ZENBAKI BAT MARKATZEN DU)

Cifuentes Jauna? (ZALANTZAN) Juan Roviraren partetik Cifuentes?... barkatu, berarekin pentsatzen ari nintzen eta nire koinatuaren izena eman dut. Jaime naiz... bai, bueno badakizu, beti daude problematxo batzuk ez, deitu dizut Juanekin oso gustora ez naizelako ari lanean, eta zuk beti biok el karrekin lan egiteko eskatzen zenidanez, ba aurrena zuri esatea pentsatu dut... orduan lan eskaintzak broman ziren egia da bai Juani faena bat egitea izango litzateke, ez zaitetz kezkatu horregatik, biok ados ipini gara lana uzteko garbi hitzegingo dizut Cifuentes, lan hori behar dut bai, eztabaida bat izan dugu eta ez dago konponketa posiblerik, benetan Etzaidazu hori esan!, badakit lanez itota zabilatzatela bueno, ongi, ulertzen dut zuk pentsatu behar izatea, baina bakarrik eskatzen dizut azkar erantzutea ez, neuk deituko dizut, orain daukagun telefonoa ez da listinean azaltzen zuk parre egiten duzu, baina izugarria da. (NEGAR EGITEKO ZORIAN DAGO)... Eskerrik asko, Cifuentes, zure deiaren zain gelditzen naiz.

(TELEFONOA UTZI ETA DEI BERRI BAT EGITEN DU)

JAIME: Garcia del Cerro Jauna? Jaime Polancoren partetik eskerrik asko.

Ez dakizu zein ordutan itzuliko den?... dena dela eskerrik asko emaiozu

ez zaitetz arduratu, ulertzen dut oso okupatua egotea, neuk ere askotan esan dut hori bera.

(TELEFONOA UTZI ETA LISTINA HORMAREN KONTRA BOTATZEN DU)

Kabroiak!

(KARMEN SARTZEN DA)

KARMEN: Juanek ez zizun esan nahi.

(JAIME, AURPEGIA ESKUEKIN ESTALI ETA ZOTINKA HASTEN DA)

JAIME: Baina nik zer egin dut niri hau gertatzeko.

KARMEN: Zer egin dugu denok. Etzazula pentsa niretzat erraza denik, erosketak egitera noanean jendearen marmarrak entzun behar ditut, eta nik ere ez dut ezer egin, baina jendea gaiztoa da, besteen minarekin pozten da. Beste irakasleek ere komentarioak egiten dituzte.

JAIME: Eta ezin dugu ezer egin.

KARMEN: Hori da izugarriena, denek esaten dizkizute animoko hitzak, baina ixten ari den itxitura bat bezala da.

JAIME: Ondo pentsatuta, agian hobe izango da denboraldi baterako joatea.

KARMEN: Pozten naiz zuk hori ulertzeaz.

JAIME: Baina alaba gurekin eramango dugu.

KARMEN: Hutsegite bat izango litzateke. Imajinatzen zara norbaitek ezagutzen zaituela?

JAIME: Zer esan nahi duzu, Madrildik kanpora ere gauza bera gerta dakigukela?

KARMEN: Eta zergatik ez, telebista alde guztietan berdina da, eta aldizkariak (errebistak) kioskoetan saltzen dira.

JAIME: (UKABILKADA BAT JOTZEN DU MAHAIAN) Deabru guztiak!!

(KARMEN ZOTINKA HASTEN DA)

KARMEN: Ez digute bizitzen ere utziko.

JAIME: Entzun duzu telefonoz deitu dudanean? Inork ez du ipini nahi izan, Cifuentes bakarrik, eta honi ere ziria sartu behar izan diot zure anaia naizela esanez. Ikusten duzu zein bitxia den, urtetan ari zait zure anaia uzteko eskatzen, eta orain broma bat omen zela asmatzen du bapatean, dena dela deitzekotan geratu da.

KARMEN: Etzazu inorengandik ezer espero, baina ez zaitetz kezkatu, Juanek badaki ez zinela serio ari, ez zenuela pentsatzen esaten ari zinena.

JAIME: Dei ezazu bere etxera, Karmentxurekin hitzegin beharra daukat.

(KARMENEK TELEFONO ZENBAKIA MARKATZEN DU)

KARMEN: Axun?, Karmen naiz.... ondo, bueno ondo, zertarako esango dizut nola gauden, Jaimek neskatoarekin hitzegin nahi du bai, itxarongo dut... (USTE BAINO DENBORA GEHIAGO LUZATZEN DA) Bai?... ez zaitetz arduratu, ulertzen dut. (TELEFONOA UZTEN DU) (JAIMERI) Andereñoarekin dago.

JAIME: Eta ezin al du une batez ere utzi?

KARMEN: Axunek ez du klasetik atera nahi izan, gero deituko diogu.

JAIME: Oraintxe bertan hitzegin nahi dudala esan dut! Ekarri telefonoa!

(KARMENEK TELEFONOA BIZKARRALDEAN EZKUTATZEN DU
ETA OIHU EGITEN DU ERDI EROTURIK)

KARMEN: Ez dago klasean, ez du ipini nahi telefonoan.

ARGI-ITZALTZEA

LAUGARREN AGERRALDIA

Dekoratu berdina. Sakoneko hormek leihoa inguratu dute. Jaimeren itxura penagarria da. Zikin eta arlote ageri da. Ile nahasiak utzikeri itxura ematen dio. Kofñak kopa bat edaten du. Karmen sartzen da. Erosketa-poltsa dakar. Bere sorbaldak eroriak daude. Adorea galdu du.

Hogei egun pasa dira.

KARMEN: Hemen nago berriz ere.

JAIME: Garagardorik. ekarri al duzu?

KARMEN: Bai, noski.

(SUKALDEAN SARTU ETA POLTSA UZTEN DU.
BEREHALA IRTETEN DA GARAGARDOA EKARRIZ
ETA EMAN EGITEN DIO)

KARMEN: Etzenuke edaria nahastu behar Axunekin topo egin dut, hobeto esanda portalean zai neukan, Juanek gelerazi egin dio igotzea. Zerbait behar ote dugun jakin nahi zuen.

JAIME: (TRUFATUZ) (IRONIAZ) Oso atsegina da.

KARMEN: Karmentxu ondo dago, badirudi ahazten ari dela.

JAIME: Hain azkar ari da ahazten, non bere berririk ez daukagula.

KARMEN: Etzazu hori esan, nik egunero deitzen diot eta.

JUAN: Barkatu, galdu duena aita dela ahazten nuen.

KARMEN: Notak ekarri dizkit. (ESKAINI EGITEN DIZKIO)

JAIME: Uztazu, bere osabak ikusiko zituen. Bera da arduraduna, ez?

KARMEN: Zuk esaten baduzu Hotelera deitu dut berriro, eta oraingoan ez dute esan

beharrrik izan Julio Gallosok ez duela deirik hartzen, alde egin du. Ikusten duzu?,
hogei egun bakarrik pasa dira.

JAIME: Ba ikusten duzu nolako infernua, kanpoan zinen bitartean mundu guztiari deitu diot
berriro, eta begira zein bitxia den, despatxuan egon beharreko ogibidea eta
denak kanpora joanak ziren. (BARRE EGITEN DU) (GARAGARDOA IREKITZEN DU) Nirekin
edan nahi duzu?

KARMEN: Ez daukat gogorik, edo hobeto esanda, badakizu behin ere ez dudala edaten.

JAIME: Behin ere lehen zen, orain dena ezberdina da.

KARMEN: Oraindik ere ez duzu nahi nik Juanekin hitzegitea?, posible da hura haserrea pasata
egotea, eta agian garaia da zu berarengana itzultzeko.

JAIME: Ez duzu ba esan Axuni galerazi egin diola igotzea?

KARMEN: Mindua dagoelako da hori, baina ziur nago berak bialdu duela, beti ondo konpondu
gara. Etxetik bota zenuelako minduta egongo da.

JAIME: Eta ez dut nahi berriro itzultzerik, nik ere neure harrotasuna daukat.

KARMEN: Horixe da geratzen zaigun gauza bakarra. (ALTXA EGITEN DA) Zer nahi duzu
bazkaltzeko?

JAIME: Zuk nahi duzuna, ez daukat jateko gogorik.

KARMEN: Ikusten dut edatearekin nahikoa duzula.

(KARMEN SUKALDEAN SARTZEN DA ETA JAIME
EGUNKARIKO IRAGARKIEI BEGIRA GERATZEN DA)

JAIME: (KARMENI OIHU EGITEN DIO) Abokatuari deitzera noa.

KARMEN: Alperrik molestaturik duzu, atzotik gaur arte ezer berririk ez zen gertatuko. (OFF-EK
(JAIMEK ZENBAKIA MARKATZEN DU)

JAIME: Matilla Jauna hor dago?... Jaime Polancoren izenean.... Barkatu molestaturik, baina
ezer berririk ba ote dagoen jakin nahi nuen badakit ez dela denborarik egon, baina
besterik ez bada errebista (aldizkari) bakar batek zuzentzea lortuko banu... bai,
ulertzen dut, guri arrazoia ematea izango litzateke. (ZOTINKA) Baina nik ezin dut
gehiago itxaron badakit lasaitu egin behar dudala, baina hau ez da bitiztea... bai,
ulertzen dut, dena dela mila esker.

(MALKO BAT LEHORTZEN DU)
(TELEFONOA UZTEN DU ETA EGUNKARIRA BEGIRATU ONDOREN
URDURITASUNEZKO BARREGURA SORTZEN ZAIO)

KARMEN: (SARTZEN DA) Zerbait gertatzen zaizu?

JAIME: Ikusten al nauzu ni Bankuko kontserje bezala?, hemen bat eskatzen dute.

KARMEN: Albiste onen bat zegoela uste nuen.

JAIME: Arrazoia zeneukan, egun batean guri bakarrik gertatzen zaizkigu gauzak.

KARMEN: Horrela jarraitzen baduzu sendagileari deituko diot, ero kontuak esaten ari zara.

JAIME: Eta harritu egiten zara? Hamar egun daramatzat telefonoari erantsita, eta orain dik ez
dut lortu lehengo nire lagunekin edo hobeto esanda nire lankide zirenekin
hitzegitea. Hilabetean merkatuko liderra izatetik inork hitzegin nahi ez dion
izurriteak jotako baten antzekoa izatera iritsi naiz.

KARMEN: Jendea oso okupatua dago.

JAIME: Ni ere hala egoten nintzen norbait ikusi nahi ez nuenean. Eta hau dena kantaldi
bategatik, kantaldi madarikatu bategatik! eta nik ez nuen ezer egin, besarkada
bat eman lagun bezala bakarrik eta gero hau dena. Lana galdu dut, nire
alabak ez du nirekin hitzegin nahi, eta zu gero eta urrunago sentitzen zaitut...

KARMEN: Zurekin hitzegin behar dut. (ESKUETATIK HELTZEN DIO) Ez da egia Axun etorri dela,
Juan zen, momentuz ni beraiekin bizitzera joatea nahi du.

JAIME: Zeuk ikusiko duzu zer egiten duzun.

KARMEN: Nik ezin dut honela bizitzen jarraitu, ilusiorik gabe, zeure burua poliki-poliki

desegiten ari zarela ikusiz.

JAIME: Ezin dut beste ezer egin.

KARMEN: Eta nik ezin dizut aholkurik eman, zu bezalaxe nago, lur jota, baina gure alabarekin bizi beharra daukat eta nire lanera itzuli beharra, gustora sentituko naizela uste dut umeeekin.

JAIME: Eta ni ez ala?

KARMEN: Zure arazoez etzaidazu hitzegin!, nik neureak ditut eta ez dakit nola konpondu, ez naiz kapaz neure kabuz erabakiak hartzeko, baina joatea erabaki dut, hobe izango dela uste dut biok denbora batez elkarrengandik banatzea.

JAIME: Joaten bazara ez dugu gehiago elkar ikusiko.

KARMEN: Etzazu hori esan, noski elkar ikusiko dugula, baina nik badakit horrela ezin dugula jarraitu, alaba bat daukagu, eta baten burua hondatzearekin nahikoa da.

JAIME: Noiz joango zara?

KARMEN: Oraintxe bertan, bestela gero ez nuke kemenik edukiko. Juan zai daukat bere kotxean. Afaria labean utziko dizut.

(KARMEN SUKALDEAN SARTZEN DA
JAIME LELOTUTA BEZALA GELDITZEN DELARIK.
BEREHALA MALETA TXIKI BAT
ESKUTAN DUELA ITZULTZEN DA)

KARMEN: Atezainak egunero igoko dizu jana, berarekin hortan gelditu naiz.

JAIME: Ez zaitetz arduratu, edozer gauzarekin moldatuko naiz.

(KARMENEK MALETA LURREAN UTZI
ETA JAIMEREKIN HITZEGITEN DU)

KARMEN: Zerbait galdetu nahi dizut. Ni ez naiz behin ere emakume azkarra izateaz harrotu, Majisteritza beste askok bezala bukatu nuen, eta irakasle bezala ez naiz multzo handitik atera, horregatik ez dut ulertzen gertatu dena.

JAIME: Eta nik baietz uste al duzu?

KARMEN: Esan duten guztian egiaren arrastorik badagoen jakin nahi dut, nik ezin dut ulertu gertakizun zoro batetik honelako hondamena eta larritasuna sor daitekeenik. Uste dut zerbait txarra balitz ere nahiagoko nukeela egia jakitea, bizitza den bezalaxoxea da, eta jarri egingo nintzateke, esan duten guzti horretatik zerbait egia balitz ere, baina ezin dut sinistu inork errurik eduki gabe gu honela lur jota uztea besterik gabe, bakarrik bi gizonek dokumentazioa eskatu dizutelako eta zuk zergatik jakin nahi izan duzulako, ez litzateke zuzena izan go gure bizitzak hain gutxiagatik desegitea.

JAIME: Eta zer nahi duzu esatea, egun batzuk lehenago bronka armatuko nizun esan duzunagatik, baina bakarrik esan diezazuket zuk ezagutzen nauzula. Ni ez naiz beste inor baino gehiago edo gutxiago, gizon arrunt bat naiz, arrakasta eman zidan lan arrunt batekin, eta behin txorakeria bategatik -bi neskek hala eskatu zidatelako lagun bat kantatzen ikustera joan nintzen eta gero zuk dakizuna gertatu zen.

KARMEN: Hori bakarrik?

JAIME: Eta orain edaten bakarrik dakit, eta bakarka negar egiten eta etsipenez beteta egoten, eta ulertzen dut zu joatea, elkarrekin egoteak ez bait du ezer konpontzen. Baina telefonoak jo eta lanen bat eskaintzen badidate, berehala deituko dizut telefonoz niregana itzuli nahi duzun galdetuz.

(KARMENEK BURUA JAIMEREN SORBALDAN
APOIATZEN DU ETA NEGAR EGITEN DU)

JAIME: (MASAILEAN MUSU EMATEN DIO) Esaten ez badiozu ere, musu hauetako bat gure

alabarentzat da.

KARMEN: Nik hau dena ulertzen lagunduko diot.

(KARMEN MALETAREKIN IRTETEN DENEAN
AZKEN GERTURATZE BAT DAGO DEKORATUAN)

JAIME: (TELEFONOA HARTZEN DU) (MARKATZEN DU) Cifuentes Jauna!... Jaime Polancoaren partetik pentsatzen nuen bai ez zela egongo, barkatu, baina, esango al diozu oso garrantzitsua dela?, eskerrik asko, ez zaitetz arduratu, badakit ez dela bere errua.

(TELEFONOA UZTEN DU.
GARAGARDOA EDATEN BUKATZEN DU
GELDI-GELDI ETA ZUTITU EGITEN DA.
LEIHOA IGO ETA BERE BURUA BOTATZEN DU HANDIK)

LEHEN EKITALDIAREN BUKAERA

Bigarren ekitaldia

OIHALA ALTXATZEAN DEKORATU BERDINA. EGONGELA HUTSIK DAGO. INORK ERANTZUTEN EZ DUEN TELEFONO BAT ARI DA JOKA. DENBORA GUTXI BARRU AHOTSAK ENTZUTEN DIRA OFF-EN.

KARMEN: (OFF-EN HAUR BATI HITZEGINGO BALIO BEZALA) Bakarrik utziko zaitut momentu batean. (GILTZA HOTSA ENTZUTEN DA ETA KARMEN SARTZEN DA, ATEA ERDI IREKITA UZTEN DU ETA KANDELATXO BATZUK PIZTUTA UZTEN DITU EGONGELAN BANATURIK ETA BAT TARTA BATEN ERDIAN. BERRIRO IRTEN ETA JAIMEREKIN SARTZEN DA. KURPILEKIKO SILA BATEAN DAKAR HAU, BURUA BAKARRIK MUGITZEN DUELARIK. LEPOZ BEHERA PERLESIK JOTA DAGO) Ez itzazu begiak ireki ezertarako. (BENGALA BAT PIZTEN DU) Orain! («ZORIONAK ZURI» ABESTEN DIO KONFETI BATZUK BURUTIK BEHERA BOTATZEN DIZKION BITARTEAN)

JAIME: Nire urtebetetzea al da?

KARMEN: Zehazki ez. Baina gaur betetzen dira sei hilabete etxe honetatik irten zinela. (INGURURA BEGIRATZEN DU) Ze ederki egoten den etxean! Ez al zaizu iruditzen?... Ospakizun hau gustatu zaizula...

JAIME: Zuri dagokizun modukoa iruditu zait. (KARMENEK SUSMOTSU BEGIRATZEN DIO)

KARMEN: Ez daukat esan beharrik egun hauetan telefonoa zer izan den. Eta ez uste lehen bezala gaizki esaka aritzeko, zorionak emateko baizik. Eta gertatu zitzaizunaren aurrean bere laguntasuna azaltzeko. Era guztietako deiak egon dira. Ikusten duzu, jendea ez da uste genuen bezain gaiztoa... Zerbait behar al duzu?

JAIME: Ez, eskerrik asko.

KARMEN: Orduan zerbait garbitzeko aprobeztatuko dut. Sei hilabetez etxean egon ga be jabetuko zara nola egongo den dena... Telebista jartzea nahi al duzu?

JAIME: Nahi duzun bezala.

KARMEN: Niri berdin zait, baina zuretzat entretenigarri izango da.

(TELEBISTA PIZTU ETA JAIME AURREAN IPINTZEN DU.
TELEDIARIO AURREKO MUSIKA JOTZEN ARI DA)

KARMEN: Ondo zaude honela?

JAIME: Ez zaitetz arduratu.

KARMEN: Zerbait behar baduzu, dei iezadazu. (SUKALDEKO ATETIK DESAGERTZEN DA)

ESATARIA: (LOKUTOREA) Berriro harrapaketa bat egin du poliziak Madrileko periferiako auzoetan. Hamalau afrikar eta sei marrokiar harrapatu dituzte ekintza honetan,

eta dokumentaziorik gabe badaude, estranjeriako legea egotziko zaie. Gaurkotasuna berriro hartzen duen izen bat daukagu gaur, duela sei hilabete gutxi gorabehera entzuleen arreta bereganatu zuena. Jaime Polanco, Julio Gallosoren errezibimentura Aireportura joan eta hango gaizki ulertutako gertaera bategatik bere burua hiltzea intentatu zuen gizona. Gaur Jaime Polanco etxera itzuli da, baina bizia salbatu duen arren, Jaime kurpilekiko sila batean dago eseria. Zaindu duten sendagileek diotenez, egoera onean aurkitzen da.

JAIME: (BERE BURUARI BEGIRA) Eskerrak ongi nagoen.

ESATARIA: Jaime Polancori, hilabete Zainketa Bereziatako Gelan eta sei ospitalean egon denari...

(ALBISTEAK EMATEN JARRAITZEN DUTE)

JAIME: Karmen!

KARMEN: Zerbait behar al duzu (SARTU EGITEN DA)

JAIME: Teledista itzal ezazu. (ITZALI EGITEN DU) Telediarioran eman berri dute etxera itzuli naizela albistea.

KARMEN: Eta zergatik ez didazu deitu? Seguru Adrianaren kontua izango dela. Neska hori kazetari bezala fenomeno bat da.

JAIME: Konturatu zaituz ongi nagoela esan dutela...

KARMEN: Eta hala zaude. Entzun diezu sendagileei irteterakoan. Zure aldetik gogoia jartzen baduzu, urte bete baino lehen saltoka.

JAIME: Sila eta guzti zail samarra izango da.

KARMEN: Ez zaituz hain beltza izan. Poz haundi bat emango dizut. Badakizu nor datorren une batetik bestera?, Juan nire anaia.

JAIME: Ze ondo, ezta.

KARMEN: Animoa eman nahiko dizu. Aurrez esan dit, nahi duzunean zure lantokia zai daukazula.

JAIME: Eta makinaz idatzi behar al dut?

KARMEN: Gero eta zailagoa zaude! Sendatutakoan esan nahiko du. Benetan ez al duzu ezer behar?

JAIME: Pix-pix egin nahi dut.

KARMEN: Baina presa handia al daukazu?

JAIME: Zuk zorua garbitu nahi duzun ala ez, hortxe dago kontua...

KARMEN: Hortarako nahiago dut oraintxe eraman.

(KARMENEK SILA BULTZAKA DARAMA ETA
BAINUGELAKO ATETIK SARTZEN DIRA,
BARRUAN DAUDENEAN TELEFONOAK BERRIRO JOTZEN DU)

KARMEN: (OFF-EN) Banoa... banoa... ezin naiz denetara iritsi.

(KORRIKA SARTZEN DA ETA JUSTU HARTZEKO MOMENTUAN TELEFONOAK JOTZEARI UZTEN DIO)

KARMEN: Alajainkoa!

JAIME: Karmen!

KARMEN: (ITOMENEZ) Gizon, ezin al duzu pixka bat itxaron .

JAIME: (OFF-EN) Bukatu dudala uste dut.

KARMEN: Momentu bat, berriro jotzen ote duen zai nago.

JAIME: Hoztu egiten zait baina.

(ZALANTZAN DAGO ETXOIN EDO JAIMERENGANA JOAN)

KARMEN: (BERE BURUARI) Bueno, zerbait garrantzitsua bada, joko dute berriro ere.

(JAIME DAGOEN TOKIRA DOA ETA BEREHALA
KURPILEKIKO SILARI BULTZAKA ITZULTZEN DA)

JAIME: Zerbait irakurriko bazenit, pozik jarriko nintzateke.

KARMEN: Badirudi apropos egiten duzula, ni zerbait egiten hasi zai egoten zara tabarra emateko. Sukaldeko armarioei hautsa kentzen ari natzaie.

JAIME: Eta ni tximista batek jo nazala!

KARMEN: Ba horixe bakarrik falta zaizu... Ongi da, zer nahi duzu irakurtzea.

JAIME: Entretenigarri izango zaidan edozer gauza.

(KARMENEK ALDIZKARI BAT HARTU ETA
BIZPAHIRU ALBISTE ZAHAR IRAKURTZEN DIZKIO)

JAIME: Hori banekien lehendik.

KARMEN: Pentsatzen nuen. Aldizkari hau duela sei hilabetekoa da eta.

(ATEKO TXIRRINAK JOTZEN DU).
(JUAN SARTZEN DA SASOIEZ BETERIK
DAGOEN ITXURAK EGINEZ)

JUAN: Zer moduz dago gure txapelduna.

JAIME: Ikusten duzu. Pesak egiten.

JUAN: Oso ondo ikusten zaitut, gertatutakoa gogoan izanda, noski. Tori, erregalo bat ekarri dizut. (ESKUAN KAXA BAT DARAMA)

KARMEN: (HARTU EGITEN DIO) Ea zer ekarri duzun, bonboiak badira Jaimek ezin ditu jan. (IREKI ETA PUZZLE BAT ATERATZEN DU) Puzzle bat. Gizona, zein egokia zaren.

JAIME: Ez zaitetz kezkatu, hortzekin egin dezaket.

KARMEN: Yo-yo bat zergatik ez diozu ekarri.

JUAN: Barkatu, gizona, baina zauden bezala egonda ez dakizu nola asmatu. Dena dela gorde diezaiokezu sendatzen denerako.

KARMEN: Ze erremedio. Whisky botila bat ekar zenezakeen behintzat. Hainbeste denbora kanpoan egonda ez daukagu ezer bisitariei emateko.

JUAN: Badakizu ni ez naizela batere praktikoa erregaloetan.

KARMEN: Erregaloetan eta denean. Baina begira. Pixka bat irakurri iozu eta horrela nik garbitzen jarraituko dut.

JUAN: Nahi duzun bezala. (APALETIK LIBURU BAT HARTZEN DU)

KARMEN: Zein liburu hartu duzu?

JUAN: Don Quijote.

KARMEN: Ba hori ezta pentsatu ere. Nahiko nahastua dauka lehendik burua, zu orain ero horrekin etortzeko. (LIBURUA KENTZEN DIO ETA ATERA EGITEN DA)

JUAN: (AHOTS BAJUAN) Nahi baduzu Interviu-ko ipuin erotikoa irakurriko dizut.

JAIME: Etzaitetz sadikoa izan.

JUAN: Aizu. Eta ez al duzu nahiago beste zerbait egitea?

JAIME: Billar-en jokatu ez beste dena libre.

JUAN: Horrelaxe gustatzen zait. Umorea galdu gabe segitzea. Hitzegitea nahiago al duzun esan nahi nizun.

JAIME: Eta zertaz hitzegingo dugu?

JUAN: Gertatu diren gauzetaz. Edo gogoratu nahi ez baduzu, Bulegoaz hitzegin genezake. Karmenek esango zizun zu lanera itzultzeko deseatzten nagoela.

JAIME: Bai, esan dit, bai.

JUAN: Eta zer iruditzen zaizu?

JAIME: Zer nahi duzu esatea. Honela egonda ezin dut neure burua egoera horretan ikusi.

JUAN: Pentsatzen dut. Baina pozten zarela entzun nahi dizut. Eta gainera sorpresa bat

emango dizut. Sozio izango garela erabaki dut. Ideia gustatzen zaizu? «Rovira eta Polanco»

JAIME: (OSO LASAI) Polanco eta Rovira»

JUAN: Aizu, hori ere ez da.

JAIME: Beteago jotzen du belarrira.

JUAN: Baina pentsa ezazu gure abizenak hirurogei urte baino gehiago daramatzala merkatuan

JAIME: Eta zuk pentsatu ni gabe sei hilabeterik ere ez duela iraungo.

JUAN: Ez dizut ulertzen.

JAIME: Hobeto ulertuko duzu esaten badizut Cifuentes ospitalean izan nuela ni ikus ten.

JUAN: Eta adorea eduki zuen, egin zizuna egin eta gero?

JAIME: (HASERRE ERANTZUTERA DOA, BAINA EUTSI EGITEN DIO) Hobe izango dugu gai hori ez ikutzea, utz dezagun.

JUAN: Utzi ez, jakin egin nahi dut kabroi horrek esan dizuna.

JAIME: Gero etzazu protestarik egin, hitzegitera eta eskatu nion lana eskaintzera etorri zitzaidan, ulertuko duzun bezala elkarrizketan negozioak aipatu genituen, eta badakit zurea ez doala batere ongi.

JUAN: Orain mundu guztia zurekin gogoratzen da orduan.

JAIME: Esaten duenez ez omen zuen pentsatzen arazoa hain grabea izango zenik, gure arteko eztabaida pasakor bat izango zela uste omen zuen.

JUAN: Nahi duena esatea dauka, baina nik esaten dizut bazekiela gauza serio zihuala.

JAIME: Egia esan orain ez du garrantziarik, baina esan zidana zera da negozioa porrot egiten ari dela.

JUAN: Hori duk zerria! Gezurra izateaz gain zerrikeria bat da. Gertatzen dena da bezeroak zurekin hitzegiten ohituta zeudela.

JAIME: Noski zuri ez zizuten ilerik ere ikusten eta.

JUAN: Ni nahastu egiten naiz zuk eramaten zenuen kontu izkutuen rolo horrekin, hori esan gabe kazetarisa horrek gurutzean josten nauela artikulu bakoitzean, zu, berriz, heroe bat bihurtu zaitu.

JAIME: Honela ikusita, martir bezala utz nazakezu.

(KARMENEK BURUA AZALTZEN DU)

KARMEN: Juan, zuk deitu al duzu telefonoz?

JUAN: Nik ez.

KARMEN: Lehen jo egin bait du eta ez dute berriro deitu. Hain okupaturik nengoen ez dut hartzerik izan.

JAIME: Pitolina ateratzen ari zitzaidan.

KARMEN: Ez zaitetz zikina izan!

(SUKALDEAN SARTZEN DA BERRIRO)

JUAN: Hain zuzen, gogoratzen al zara zein portzentaia ordaintzen zuten Matos Navierakoek motorengatik?

JAIME: Esan dizut ez naizela ezertaz gogoratzen.

JUAN: Ni izurratzeagatik egiten duzu! Sendagileei galdetu diet eta esan didate memoria galtze hori kontua dela.

JAIME: Baita ere esaten dute sila honetan ez daukadala zertan egonik eta bitartean begira.

JUAN: Altxa nahi ez duzulako izango da.

JAIME: Ez zaitetz majaderoa izan, zer uste duzu niri ez litzaidakeela gustatuko?

JUAN: Hori Lurdesen sendatuko dizute Gori-Gori egindakoan.

JAIME: Bromak utz itzazu bazterrean.

JUAN: Bromak utzi behar dituen zeu zara! Zer nahi duzu, guztiz beharrezkoa zarela esatea?

Baie, guztiz beharrezkoa zara! Kazetarisa bazter-nahastaile horrek luma sartu duenetik historia honetako otso beldurgarria naizela? Baita, hori ere aitortzen dizut, baina zeuk ere ondo asko dakizu nik esan nizun gauza bakarra denbora batean atsedena hartzeko izan zela, eta ordainetan zure etxetik bota ninduzun. Eta orain Cifuentes kabroia Kalkutako monja hori balitz bezala datorkizu ogi apurrak eskaintzera.

JAIME: Jakin ezazu eskaini didana ogi oso bat dela.

JUAN: Pentsatzen dut, bai, hortik zehar esaten ari da zu bere zerebroa izatea nahi duela.

JAIME: Bai, bere hankak izan beharko banu konponduta legoke.

(KARMENEK BERRIRO BURUA AZALTZEN DU)

KARMEN: Ondo zaintzen al zaitu?

JAIME: Astuna jartzen zara batzutan.

KARMEN: Hara ze esker ona!

(BARRURA SARTZEN DA BERRIRO)

JUAN: Eta gainera Maharaja bat bezala zainduta.

JAIME: Bai, bai, honela egotea txollo haundi bat dela.

JUAN: Ez noa gehiegikeriak esatera, baina seigarren pisu batetik zeure burua bota ondoren hauxe da gerta ziezazukeen gutxiena. Eta zeuk ere aitortuko duzu ez dagoela txarrik inguruan ona ekartzen ez duenik, eta aldizkariak eta egunkariak idatzi zutenagatik, zuek orain kristoren diru mordoan aterako diezue eta hori beste kazetarisa horrek bere erreportaiengatik ordainduko dizuen kontutan hartu gabe. Urrezkoak egingo zarete.

JAIME: Gauza horiek Karmenek eramaten ditu.

JUAN: Nire arrebak lintze batek baino begi hobea dauka eta ez dut uste gaizki ate rako zaretenik, eta gutxiago oraindik hura kalumnia bat zela denek onartu dutenean.

(ESKUAK LEHORTUZ SARTZEN DA KARMEN)

KARMEN: Itxuroso gelditu da behintzat. Datorren astean asistenta bat hartuko dugu, eta pisolz aldatzen bagara, neskamea egun osorako.

JAIME: Ranpadun piso bat nahi dut nik.

KARMEN: Bai, gizona, bai, baina badaezpada ere lehenengo piso bat izan dadila.

JUAN: Jaimeri esaten ari nintzaion nolako dirutza aterako duzuen Adriana horrekin.

KARMEN: Oso neska jatorra, eta kazetari bezala, onena.

JAIME: Aberastu behar gaituen momentutik asko hobetu da.

KARMEN: Ez dakit zergatik esaten duzun hori, jendea ezagutu egin behar da, bestela nola jakingo duzu, ba, zein hanketatik herren egiten duen.

JAIME: Hori zer da, indirekta bat?

KARMEN: Etzaitz gaizki pentsatua eta kejoa izan. Hobe zenuke sendagileek zer esaten dizuten pentsatzea.

JUAN: Nahi duenean ibil daitekeela edo kontu hori?

KARMEN: Noski ba, eta daukana perlesia psikiko bat dela.

JUAN: Kronikoarekin zerikusirik ez daukana.

KARMEN: Nola edukiko du ba zerikusirik! Jaime egunen batean besterik gabe tenisen jokatzeko ikus zenezake.

JAIME: Tenisen zaila, idearik ez daukat eta.

KARMEN: Tenisen bezalaxe esan daiteke ping-pongen.

JAIME: Hortan ere ez dakit ordea.

KARMEN: Ba, kanikatan, koño! Teman aritzea gustatzen zaizu, horratio. Nahi izatea basta zu

hortan aritzeko.

JAIME: Eta hegan egiteko hegazkin batean sartzea nahiko.

JUAN: Esaten ari ginena. Kazetarisa horrekin hain harreman onak dituzue, egin zenezaketen gutxiena niri bakean uzteko esatea da.

KARMEN: Eta non egongo litzateke etika! begira, nire anaia izanagatik norberak bere erantzunkizuna beregain hartu behar du.

JUAN: Baina ze etika eta ze arraio! Hari zer kostatzen zaio esatea ni izan nintzela zure senarra abandonaturik utzi etzuen bakararra.

KARMEN: Hori baino zerbait okerragoa egin zenuen, nik ere utz nezala esan zenidan, baina egia esango dizut, berehala itzuliko nintzen, baina kaiku honek presa haundia hartu zuen bere burua botatzeko... barkatu.

JAIME: Etzaitz kezkatu, nahiago dut garbi hitzegitea ni subnormal bat bezala hartzea baino, esaten duzuen hitz bakoitza neurtuz. Jabetzen naiz egin nuenaz, eta konfiteriko toldoa zabalik egon ez balitz gaur hemen eserita ez nintzela egongo ere bai.

KARMEN: Isildu nahi al duzue biok?, oilo-haragia ipintzen didazue kontu horiekin.

JAIME: Arrazoi duzu, hobe dugu kuba-erdi batzuk hartzera joatea, ezer ez bait da gertatu.

KARMEN: Hori da egin zenezakeena, pixka bat ahaleginduko bazina.

(TELEFONOAK JOTZEN DU)

KARMEN: (TELEFONOA HARTZEN DU) Bai Kaixo Adriana, guapa

JUAN: Lehen hala, orain hola, gero ez jakin nola.

KARMEN: (HIZKETAN JARRAITZEN DU) Nik ez, baina Jaimek bai, ikusi du ez dakizu etxea nola zeukan, ijitoak baino okerrago... (JAIMERI) Albistea eman duten bezala zer iruditu zaizun galdetzen dit.

JAIME: Nire argazki bat kurpilekiko silan falta zitzaien.

KARMEN: (AURIKULARRA ESTALIRIK) Hau gizona! (ADRIANARI ZURI-ZURI) Oso ondo esaten du bueno gertu bazaude, hemendik ere pasa zintezke, eta bide batez etxea ezagutuko zenuke eta leihoa ere bai ez, polita, ez, fotograforik inola ere ez, kontratua sinatu arte behintzat, zaude isilik, zera izango naiz ni gogorra, ondo asko dakizu zure eskutan gauzkazula...

JUAN: Lehen esan dudana, lintze bat dela.

KARMEN: Poltsan baldin badauzkazu, ekarri eta nire lege arazoetarako asesoreei pasako dizkiet.

JUAN: Baina, asesoreak al daukazue, ala?

JAIME: Zera edukiko ditugu guk asesoreak!

KARMEN: Nahi duzun bezala....

JAIME: Galdeiozu Julio Gallosorekin hitzegin al duen.

KARMEN: Jaimek galdetzen dit Julio Gallosorekin hitzegitea lortu al duzun pentsatzen dut, bueno, etorritakoan kontatuko diguzu.... Chao.

(TELEFONOA UZTEN DU)

JUAN: Nik enekien italiano ez ere hitzegiten zuenik.

KARMEN: Nik diruagatik behar den guztia hitzegiten dut, Neska honek uste du ni tuntuna naizela, leihoi argazkiak ateratzen dizkiote, eta gero milioi bat gutxiago ematen digute.

JUAN: Nik esan dizudana, lintze bat!

KARMEN: Ez daukazu niri iruzur egin beharrik.

(TELEFONOAK BERRIRO JOTZEN DU)

KARMEN: (TELEFONOA HARTUZ) Bai, hemen da ulertzen dizut, baina arazo hauek Adriana del Tesok eramaten dizkigu bueno, hori pertsona honekin akordio batera iritsiko ez

bagina beharko luke konpentsazio materiala ere garrantzitsua da ulertuko duzun bezala, baina benetan interesatzen zaiguna konpentsazio morala da, (BURLAZKO KEINU BAT EGITEN DIE) begira, ondo iruditzen bazaizu telefonoko zenbakia hartuko dizut eta abagunerik suertatzen bada deituko dizut eskertzen dizut hori esatea, eta oso ondo dakit bera izan zela nire senarraren kontrako kanpaina eraman zuena, baina pentsatzen dut baita ere Jainkoak barkatzeko agintzen digula.... bai, hartzen dizut, 2201314, behar badut deituko dizut, eskerrik asko. (TELEFONOA UZTEN DU) Ahoa bete hortzekin utzi dut espabilatu hori.

JUAN: Konpentsazio moralarena borobila atera zaizu.

JAIME: (IRONIAZ) Hori ere izango zen beste norbait «kaixo moteil» esanda ordain du nahi zizuna.

KARMEN: (ZIURTASUNEZ) Ziur... (JAIMEREN IRONIAZ KONTURATZEN DA) Adarra jotzeko esaten al didazu hori?

JAIME: Ez, emakumea.

JUAN: Aizu, zuk asko ikasi duzu denbora gutxian, e.

KARMEN: Ni ez naiz nerekoia, baina horiek denak larrutik ordaindu beharko dute egin zigutena.

JAIME: Arrazoi osoa daukazu. Eta ez al zaizu bururatu ni ferria batean erakustea?

KARMEN: (INSTINTIBOKI ERANTZUTEN DU) Karpak daukaten prezioarekin, ezinezkoa. (KONTURATU EGITEN DA) Zer nahi duzu! Ni nere onetik ateratzea?

JAIME: Ezer egin gabe ez egoteagatik esaten nizun.

KARMEN: Egunetik egunera arraroagoa zaude! Pentsatzen nuen etxera etorritakoan ospitaleko bizitzatik ezberdina izango zela, baina ikusten dut gauza bera dela.

JUAN: Gauza bera diozu? Okerrago oraindik!, ezertaz ez dela gogoratzen sinestarazi nahi dit, eta bere erruz bulegoa geldituta daukat.

KARMEN: Eta oso ondo egiten du, ez duzu ba pentsatuko gauzak debalde esango dizkizunik.

JUAN: Aizu, zure anaia naizela, e!

KARMEN: Horrek ez dauka hemen zer ikusirik. Negozioak negoziok dira.

JUAN: Badakizu zer esaten dizudan, zu ez zarela lintze bat, hiena bat zara zu!

KARMEN: Hitz zoroen aurrean... badakizu.

JUAN: Zuk zera ahazten duzu: Portillo Aduana Agentzia gure aitak denoi utzi zigun negozio bat dela.

KARMEN: Hilda gero, salda bero. Hamar urte pasa dituzu inolako esplikaziorik inori eman gabe, eta negoziok porrot egiten duenean gogoratzen zara familia osoarena dela.

JUAN: Zer esan nahi duzu!

KARMEN: Entzun duzuna, Jaimeri odola zupatzeaz gain, ahaztu egin zitzaizun Agentzia denona zela.

(JAIMEK PING-PONG PARTIDU BAT BALITZ BEZALA
JARRAITZEN DU EZTABAIDA)

JUAN: Nik Jaimeren odola zupatzen nuela?

KARMEN: Entzun duzun bezala!

JUAN: (JAIMERI) Eta zuk zer diozu?

JAIME: Karmenek bi eta huts irabazten duela.

JUAN: Hau bai ez dizuedala agoantatzen! (ZUTITU ETA ATERANTZ DOA, IRTETERA DOANEAN JIRATU ETA ZEREMONIAZ GALDETZEN DIO JAIMERI) Harremanak haustera goazenez, ezingo al zenidake esan Navierari kobratzen zenion portzentaia?

KARMEN: Debalde ezta hitz bat ere!

JUAN: Urde zikina! (ATE-KOLPE BAT EMANEZ JOATEN DA)

KARMEN: Joan hadi eta lepoa hausi zak! Nik ez dezadala jakin zuk ezer esan dizunik, hori berriro etorriko da, bai noski, ni hemen nagoen bezalaxe. Eta burua ongi makurtu

araziko diot.

JAIME: Horrelaxe gustatzen zait! Anai arteko elkartasuna.

KARMEN: (MOSKEATUTA BEGIRATZEN DIO) Nazkagarrikeriaz ez duzu ba esango.

JAIME: Jarri zaizun jenio txar horrekin hitzak ondo neurtuko nituzke.

KARMEN: Gure neska!

JAIME: Zer gertatzen zaio neskari?

KARMEN: Ahaztu egin al zaizu Juanen etxean bizi dela?

JAIME: Nola ahaztuko zitzaidan ba, baina horrek zer axola dio.

KARMEN: (MORBOZ BETETA) Juan hura torturatzeko kapaz dela.

JAIME: Baina ze txorakeriak esaten dituzu!

KARMEN: (MORBOZ BETETA) Zuk ez duzu nire anaia ezagutzen, txikitan sadiko bat zen, euliei hegoak kendu eta guzti egiten zien.

JAIME: Eta nik orratz batean sartzen nituen harrapatutako tximeletak, eta horregatik ez dut uste arraroa naizenik.

KARMEN: Normala iruditzen bazaizu seigarren pisu batetik zeure burua botatzea.

JAIME: Gainera Karmentxuk ez dauka hegorik.

KARMEN: Baina besoak dauzka.

JAIME: Nire ustez pixka bat erotuta zaude zu.

KARMEN: Berdin zait zuk diozuna, bihar bere etxera joango naiz eta ekarri egingo dut.

JAIME: Ez!

KARMEN: Oraindik ere kurpilekiko silan ez ikusteko txorakeria horrekin jarraitzen al duzu?

JAIME: Niri ez zait txorakeria iruditzen.

KARMEN: Baina Zainketa Berezieta Gelan etzanda ikusi zintuen eta!

JAIME: Han ezin nion eragotzi, baina hemen, bai.

KARMEN: Nigatik nahi duzun bezala. Baina zerbait gertatzen bada, zu izango zara erruduna.

JAIME: Esan nizun ospitaletik atera ginenean.

KARMEN: Ondo dago, ez noa gehiago esatera. Eta normalago zaudenean, ez bait dakit konturatu zaren ezinezkoa zaudela, zure istripuaren ondorioz ateratako prentsa zatiak erakutsiko dizkizut.

JAIME: Zein istripu.

KARMEN: Zurea, irristatu eta leihotik erori zinenekoa.

JAIME: Neure burua bota nuela esan duzu lehentxeago.

KARMEN: Ez nintzen konturatuko.

JAIME: Eta telebistak ere neure burua bota nuela esan du.

KARMEN: Gugatik hitzegin dezatela, bihar bideoa eskatuko dut eta beste demanda bat ipiniko diegu, ikusten denez horiek ez dira eskarmentatzen.

JAIME: Baina Adrianak ere hori bera esan du aldizkarietan.

KARMEN: Adriana nahiko azkarra da gauza erdi argi erdi ilun uzteko. Berak ez du esaten erori egin zinenik, baina ezta ere leihora hurbildutakoan zeure burua botatzeko intentzioa zeneukanik.

JAIME: Orduan txorabio bat izan zen.

KARMEN: Hara ze azkarra!, ba niri ez zitzaidan burutik pasa hori, Adrianari esango diot ikus dezan gu ere ez garela hain motzak.

(ATEKO TXIRRINAK JOTZEN DU)

KARMEN: Ez dizut ba nik esan Juan berriro etorriko zela?

(ATEA IREKIZERA ZUTITZEN DA)

KARMEN: Bai, nor da?

ADRIANA: (OFF-EN) Adriana del Teso.

JAIME: Beti bezala arrazoia zeneukan.

(KARMENEK ATEA IREKITZEN DU ETA
ADRIANA OSO AUSARTA SARTZEN DA.
GABARDINA ETA HONI DAGOKION SONBRERO
HEGO ZABAL BAT DAUZKA JANTZITA,
BERE ITXURA MISTERIOTSUA DA,
ETA BERE IBILERA AUSARTA)

KARMEN: Kaixo, Adriana.

ADRIANA: Beste ezer baino lehen gauza bat esan behar rrari zer gertatu zitzaien galdetzen badio, tzun behar dio.

KARMEN: Emakumea, hori da artea, hori!

ARGI ITZALTZEA

BIGARREN AGERRALDIA

Dekoratu berdina. Ekintza bukatu den agerraldiaren jarraian dator. Oihala altxatzerakoan, Adriana del Tesok emandako kontratoak irakurtzen ari da Karmen.

KARMEN: Begiratu batera ongi iruditzen zaizkit, baina esan dizut nire asesoreek irakurri behar dituztela, ni gauza hauetan salduta aurkitzen naiz. Gau za bat, zure aldizkaria ez dut hemen ikusten demandatan sartuta.

ADRIANA: Ez duzu ba pentsatuko eskusiba ordainduko digutenik demanda sartzen badiegu.

KARMEN: Horretan arrazoi izango duzula uste dut. Zuri zer iruditzen zaizu, Jaime.

JAIME: Hori niri axola ez zaidan gai bat da.

KARMEN: Baina niri bakarrik ez didazu ba utziko gauza guztien ardura.

JAIME: Nik nahi dudan gauza bakarra, Julio Galloso bera ni ikustera etorriko dela ziurtatzea da.

KARMEN: Bere izena oihukatzen aritzen diren txolin horiek baino okerrago zaude.

JAIME: Nire arrazoiak ditut.

ADRIANA: Hura etortzea lortzen badugu, elkarrizketa salduta daukagu jadanik. Juliok erantzutea bakarrik falta zaigu, eta ez dut uste ezezkoa emango di gunik, bere managerrak aitortu nahi ez badu ere, arazo honek Julioaren imajin publikoa asko kaltetu du.

KARMEN: Hala iruditzen al zaizu?

ADRIANA: Ziur nago. Publikoa oso sentibera da gauza hauetarako eta ez du erraz barkatzen. Eta etzazu ahaztu zure senarra hilzorian egon zela gertatu zen gaizki ulertze zoro harengatik.

JAIME: Zu izan zinen zurrumurru hura lehenengo bota zuena.

ADRIANA: Ni notizia sortzen den tokian nago, eta zu une hartan hala zinen. Nire aitarekin ere gauza bera egingo nukeen.

JAIME: Oso ogibide erromantikoa da zuena.

ADRIANA: Ez da ogibide bat, burruka bat da.

JAIME: ADRIANA,

KARMEN: Dena da burruka. Gaur zu zarela medio nire anai bakarrarekin haserretu naiz. Erreportaien truke bera bakean uztea nahi zuen.

ADRIANA: Ni ezagutuko banindu ederki asko jakin beharko luke nik tratu horiek ez ditudala onartzen.

KARMEN: Horixe esan diot neuk ere, familia gauza bat dela eta beste bat etika.

ADRIANA: Niri etika etzait piperrik ere inporta, baina aginduak ez ditut agoantatzen.

(DENA KONTUZ-KONTUZ AZTERTZEN JARRAITZEN DU)

KARMEN: Aizu, ez duzu ba ekarriko argazki makinaren bat gordeta, ezta?

ADRIANA: Nire ustez espioien pelikula asko ikusi dituzu zuk.

KARMEN: Hainbeste gauza entzuten dira orain.... Gaur bertan zure lanbide bereko batek deitu du eskeintza bat egiteko, eta bide batez zu kakaztuta ipintzeko.

ADRIANA: Zaunka ari dira, orduan zaldi gainean gabiltza,

KARMEN: (OSO POZIK) Hori Don Quijotekoa da, ezta?

(JAIMERI IZUGARRIZKO BARREGURA SARTZEN ZAIO)

ADRIANA: Horrelako esaldi barregarriekin kazetaria izan behar zenuen zuk edo libururen bat idatzi gutxienez.

KARMEN: Ba etzazula pentsa, beti izan da nire ilusiorik haundienetako bat.

ADRIANA: Axola al zaizu zure gizonari nota batzuk hartzea?

KARMEN: Sekretuak ateratzeko ez bada, ez.

JAIME: Batez ere ohe-kontuak, azkenaldi honetan geldi samar nago.

KARMEN: Hori etzazu ipini!

ADRIANA: Etzaitz arduratu. Zure senarraren umorea gustatzen zait, uste dut oso ondo ulertuko dugula elkar. (JAIMERI) Ez dago esplikatuko beharrik historia osoa hankaz gora ipini behar dugula.

JAIME: Ni ez beste denak, nahi badituzu hankaz gora ipini, sila honekin zaila izango litzaizuke.

ADRIANA: Lehenbizi hitzegin egingo dugu Ongi iruditzen zaizu zure lagunek egin zizuten hutsunetik hastea?

JAIME: Eta kalumnietatik, nahiz eta hau zuk beste inork baino hobeto jakin.

ADRIANA: Nik dakit orduan jakitea interesatu zitzaiguna, orain zuk egia esatea nahi dut. Juliori musu ematea intentatu al zenuen?

JAIME: Nire estiloa ez dela hori esan diezazuket, eta gainera jakin izan banu gero hori gertatuko zela, kozka batekin belarria moztuko nion.

(ADRIANA NOTAK HARTZEN ARI DA)

ADRIANA: Noiztik elkar ezagutzen zenuten.

JAIME: Umetatik, hamasei bat urte arte elkarrekin jolastu genuen, gero elkar ikusteari utzi genion, egun batean ganbak jan zizkidan arte.

ADRIANA: Zer esaten du?

KARMEN: Eziozu kasurik egin, txorakeria bat da eta.

ADRIANA: Hutsunea erabatekoa izan al zen?

JAIME: Leioa bakarrik utzi zidaten.

ADRIANA: Eta han txorabioa sentitu zenuen, etzazu ahaztu.

KARMEN: Hain serio esaten duzueenez, ni ia-ia sinisten ari naiz.

ADRIANA: Zure koinatuak lana kendu zizun.

KARMEN: Nire anaia betuna baino beltzago ipini zenezake.

JAIME: Eziozu kasurik egin, Juanek besteek egin zutena egin zuen, hasieran lagundu zidan, baina kalteren bat etor zekiokela ikusi zuenean, ez zuen ezer jakin nahi izan.

KARMEN: Beti izan da axolakabe bat.

JAIME: Baina benetan txorakeria horietatik historia bat ateratzen al duzu?

ADRIANA: Historia bat askoz gutxiagorekin ere ateratzen da, atera behar dena drama bat da, guztiei interesatu eta bihotza ikutuko diena, eta azkar, posible da bihar Lola Floresek Haziendako Ministeritzaren aurrean zainak ebakita ere, hori bihar inori ez interesatzea.

KARMEN: Nire senarrarena Lola Floresena baino askoz grabeagoa izan zen.

ADRIANA: Baina zure senarrak ez zuen bere burua bota jantzi dotoreekin.

KARMEN: Hau da mundua, hau, emakumea.

ADRIANA: Zure asesoreak azkar ibiltzeagatik esaten dizut hau. Lanbide honetan, gaur notizia dena, bihar etzaio inori interesatzen.

ADRIANA: Inportako al litzaizuke esatea erortzerakoan zer sentitzen zenuen?

JAIME: Txorabioa.

ADRIANA: Hori ez da batere orijinala. Besterik ezer ez?

JAIME: Zoroarena egin nuela.

ADRIANA: Beste zerbait asmatu beharko dugu, alaba bat duzue, ezta?

JAIME: Hura etzazu sartu!

KARMEN: Nahi baduzu esan dezakezu sadiko batekin daukagula.

JAIME: Etzaitetz tuntu izan.

KARMEN: Ez al daukat ba ahoa irekitzerik?

ADRIANA: Txorakeriak esateko, ez.

KARMEN: (HASERRE) Barka ezazu, emakume, ez dut gehiago ezer esango.

JAIME: Zu diruaz ardura zaitetz.

KARMEN: Eta zu pix-pix egiten jartzeaz, ezta?

JAIME: Edo lehortzeaz, zeuk ikusiko duzu.

ADRIANA: Alaba aipatzerik nahi ez badu, koinatuarekin sartu beharko dugu.

JAIME: Ez du pena merezi.

KARMEN: Nola ezetz! Egiten duenak erantzun egin behar du.

JAIME: Ez duzu ba esan etzenuela hitzegin behar?

KARMEN: Juanenak hain urduri jartzen nau, ezin dudala agoantatu.

JAIME: Ba zoaz sukaldera, horrela behintzat lasai hitzegingo dugu.

KARMEN: Barkatu, ez nuen uste molestetzen nuenik (HASERRE ZUTITZEN DA)

JAIME: Orain lasaiago hitzegingo dugu.

(KARMENEK BURUA AZALTZEN DU)

KARMEN: Baina etzazu ahaztu Adrianarekin hitzegitearena nire idea izan zela. (ATEA KOLPE BAT EMANEZ IXTEN DU)

ADRIANA: Zuk ulertzea nahi dut hemendik etekina ateratzeko morbo pixka bat ipini behar dela.

JAIME: Entzutu-n larrutsik atera naiteke.

ADRIANA: Ironiak utz itzazu, berriz etzaizu honelako abagunerik sortuko Prentsari dirua ateratzeko. Aprobetxatu nahi baduzu, esaidazu, eta bestela bertan behera utziko dugu.

JAIME: Badakizu nire interes bakarra Julio Galloso etxe honetara etortzea dela.

ADRIANA: Elkarrizketa hau bukatutakoan bere managerrari deituko diot, eta ia-ia ziurtatzen dizut ez dela inolako arazorik egongo. Handiena da Juliok hegan egiteari gorroto diola, hegazkinak histeriko ipintzen du.

JAIME: Zeuk ikusiko duzu nola konpontzen zaren, hitz ematen ez badidazu ez dugu ezer firmatuko, eta entzundakoa entzun ondoren esan behar dizut hitz emate soila ez dela nahikoa niretzat.

ADRIANA: Biok bete beharrekoa betetzen badugu, ez da arazorik izango. Badakizu zer ari naizen arriskatzen zuregatik?

JAIME: Nigatik eta interesatzen zaizulako.

ADRIANA: Bai jauna, interesatzen zaidalako. Baina zuregatik lanbide honetan zailena egin behar dut, historia bat hankaz gora ipini eta bestaldera eman. Abokatu batek prozesatu bat kondena araziko balu bezala da eta gero Epaitegi Gorenaren aurrean defendituko balu bezala.

JAIME: Zu azkarra zara, asmatuko duzu egiten.

ADRIANA: Ziur egon ez banintz, ez nuen intentatuko.

JAIME: Eta nire emaztearena barka ezazu, ez dago ezer okerragorik bapatean negozioren

mundua aurkitzen duen etxekoandre bat baino.

ADRIANA: Lasaiago gelditu behar baduzu, oraintxe bertan deituko diot Julioren Managerrari. Baina aurrez jakin nahi nuke halako gogoaz zergatik daukazu.

JAIME: Zure ideiekin agian txorakeria bat irudituko zaizu, baina, neure buruaren estima kontua da. Ez dut jarraitu nahi jakin gabe Juliok bazekien edo ez.

ADRIANA: Nik esan niezazuke, badakizu bere Prentsako Buru nintzela.

JAIME: Ez, berak bere ahotik esatea nahi dut.

ADRIANA: Ondo dago, hortan bazaude...

(ZUTITU ETA NEW YORKEKO ZENBAKI BAT MARKATZEN DU
BERE LIBRETAN BEGIRATU ONDOREN)

ADRIANA: (INGLESEZ TELEFONOTIK) Suarez jaunarekin hitzegin nahi nuke. (AURIKULARRA ESTALTZEN DU) Bere manager pertsonala da.

JAIME: Ikusterik izan ez nuena?

KARMEN: (SARTUZ) Julio Gallosorekin hitzegin behar baduzue, ezin naiz hor barruan egon ezer jakin gabe. (GERATU EGITEN DA)

ADRIANA: Suarez?, zer moduz zaude bai, Adriana naiz badakizu zertarako deitzen dizudan ez dago denborarik, erabakia oraintxe bertan hartu behar duzue bizkorragoak jotzen zintuztedan zertarako engainatu behar zaitut, Julioren imajina kontu honekin nahiko kaltetua geratu da berdin zait, ni putakume bat izango naiz, baina Julio betuna bezala geratu da orduan zeren zai zaude sentitzen dut, baina azkarrak baldin bazarete putzua pasa egingo duzue...

JAIME: Zer dio?

ADRIANA: Bere artean hizketan ari dira...

KARMEN: Ba konferentziek daukaten prezioarekin, merkeago aterako zitzaigun hegazkin bat hartu eta bertan azaldu bagina.

ADRIANA: Horregatik etzaitz kezkatu, Aldizkariari kargatuko diogu Bai? (AURIKULARRA ESTALTZEN DU) Julio bera ipiniko da.

JAIME: Julio?

(ADRIANAK BURUAREKIN BAIETZ EGITEN DIO)

ADRIANA: Bukatu al duzu? Horrek irrist egiten dit niri abisatzeko eta komeni zaizulako deitu dizut. Zu matxakatzen jarraitzen badut, Espainiara itzulitakoan zure familiarentzat abestu beharko duzu nahi duzun bezala, berarekin errazagoa zait hitzegitea esaidazu Suarez bai, konturatu naiz txispak dariola dagoela bera galdetu egingo dut.

(AURIKULARRA ESTALTZEN DU) Telefonoz ezingo al genukeen konpondu galdetzen du.

JAIME: Esaiozu aurrez-aurre izan behar duela.

ADRIANA: (TELEFONOTIK) Sentitzen dut, ezetz esaten du, eta gainera Juliorengan ari naiz pentsatzen. Imajinatzen al duzu erreportaia bat nire bezeroarekin eskutik helduta?, zoramena, malkoak borborka eroriko dira, azken batean hori da bere abestiekin bilatzen duena itxarongo dut. (AURIKULARRA ESTALTZEN DU) Hau eginda dago.

JAIME: Ziur?

ADRIANA: Itxaron ezazu pixka bat eta ikusiko duzu.

KARMEN: (JAIMERI) Ea orain gogoratzen zaren Adrianarena nire ideia izan zela.

ADRIANA: (TELEFONOTIK) Ados, telegrama bat ipiniko dizut noiz etorri behar duzuen bai, guretzat zenbat eta lehenago, hobeto, eta nire erara egingo dugu, Aireportuan inolako errezibimenturik ez, ezustean izatea komeni da, bezperan albistearen susmoa zabaltzearekin nahikoa izango da aukera hau propaganda egiteko ez duela aprobetxatu nahi adieraziko dugu, horrek beti bere eragina du gure aldetik besterik ez, laster arte.

JAIME: Egina dago?

ADRIANA: Banekien etzuela hutsegingo, Juliok badaki jendeak sentimentalkeriak atsegin dituela.

KARMEN: Esklusiba saldu egin beharko da.

ADRIANA: Hau nerontzat gordetzen dut, barrengoa behinepein. Kanean nahi dituzten argazkiak atera ditzatela, baina barruan nik neuk aterako ditut, ez dut sorpresarik nahi.

(ATEA JOTZEN DUTE.
KARMENEK IREKI ETA JUAN SARTZEN DA,
ILEA NAHASTUTA ETA ERO AURPEGIAREKIN DATOR)

JUAN: (DRAMATIKO) Badakizu zer egin dudan?

KARMEN: Alaba hil duzul

JUAN: Baina, zu erotuta al zaude?

KARMEN: Zer ba, orduan?

JUAN: Ordenadorea izorratu dut!

KARMEN: Eta guri zer axola zaigu.

JUAN: Zortzi milioiko ordenadore bat! (ADRIANA DAGOELA KONTURATZEN DA) barkatu, bakarrik zeudela uste nuen.

KARMEN: Ba ikusten duzu ezetz, beraz ospa hemendik.

JUAN: Aurkezpena egiguzue, behintzat.

KARMEN: Nor den ez bazeneki bezala. (MESPRESUZ) Hau nire anaia da, Jaime bazter turik utzi zuena.

JUAN: Egunen batean hitz horiek jan egin beharko dituzu.

KARMEN: Eta neskaxa hau, badakizun arren Adriana del Teso da.

JUAN: (HARRITU ITXURA EGITEN DU) Adriana del Teso! Ezinezkoa da!

ADRIANA: Zergatik esaten duzu.

KARMEN: Zuk daukazu azala, zuk.

JUAN: Benetan enuen inoiz pentsatuko horrelako luma zorrotz baten atzean norbait horren zoragarria gordeko zenik.

KARMEN: Zure txorakeriak esan dituzu eta orain joan zintezke.

JUAN: (ETSIPENEZ) Lehenbizi zure gizonarekin hitzegin behar dut.

JAIME: Zerbait galdetu behar badidazu, badakizu alferrik dela, ez naiz ezertaz oroitzen.

JUAN: (IA ZOTINKA) Haziendakoak daude, Jaime. Jabetzen al zara?, lehengoaz gain, Haziendako Inspektoreak datozkit orain. Gestapokoak balira bezala sartu dira.

JAIME: Eta nolatan zaude hemen?

JUAN: Hanka egin dudalako, eta mendeku bat da, Jaime, zuk aldizkarietan ateratzen nauzunetik, heriotz mehatxuak eta guzti jasotzen ditut.

KARMEN: Guk hortik asko dakigu.

ADRIANA: Zure arrebak esandakoa bakarrik idatzi dut nik.

JUAN: (KARMENI) Sugedorri bat zara! Nahi zenuena lortu duzu jadanik, negoziarik gabe nago, dirurik gabe, enpresarik gabe, orain ez daukat ezertxo ere.

KARMEN: (IRONIAZ) Nahi baduzu leihoa utziko dizugu.

JUAN: (OSO DRAMATIKO) Jaungoikoak zigortuko zaitu!

KARMEN: Ikusten duzu Adriana, honekin bai serial on bat egin dezakezula.

JUAN: Berrito ikusten ez banauzue...

JAIME: Palma de Mallorcara aste beterako joan zaren seinale.

JUAN: (OSO NORMAL) Ez ba! Madeirara joango gara. Noski eta itzulitakoan neskaren gastuak pasako dizkizut, eta zin dagizut islako hotelik onenera joango garela.

KARMEN: Hoa hemendik behingoz, pixua!

JUAN: (DRAMATIKO) Eta zuri ez dizut ezer esaten, bakarrik denon artean nire bizitza hondatu duzuela.

ADRIANA: Ez dakizu nola sentitzen dudan, baina ezin dut sinistu.

JUAN: (ADRIANARI) Konfiantzaz. (BESTEENGANDIK APARTE ERAMATEN DU) Haziendako hori gezurra da, baina hunkitu ditudala uste dut.

(JUAN GELATIK IRTETEN DA)

ADRIANA: Ikusgarria da.

KARMEN: Pailaso bat da!

ADRIANA: Bueno, ni ere banoa.

KARMEN: Ezer hartu gabe?

ADRIANA: Beste egun batean. Eta ez ahaztu esan dizudana. (Zure asesoreei esan bizkor ibiltzeko)

JAIME: Julio ate horretatik sartzen denean, dena sinatuta edukiko duzula agintzen dizut.

KARMEN: Ordainketa aurrez eginda, noski.

(ADRIANA IRTETEN DA)

KARMEN: (HASERRE) Asko gustatzen zaizu ezta ni ridikuloan uztea.

JAIME: Ez duzu inoren laguntza beharrik, nork sinistuko dizu ba zuk inolako asesoreak daukazunik.

KARMEN: Zerbaiten harrokeria beharko dugu guk ere, ezta? Aizu, Julioaren erreportaia beretzat gordetzen zuela esan duenean, etzuen ba esan nahiko ezer ordaindu gabe, ezta?

JAIME: Zeuk jakingo duzu, lintzea zeu zara.

KARMEN: Badakizu zer esaten dizudan, bera oso azkarra izango dela, baina ni ere ez nagoela behatza txupatzen. Badaezpada ere nire makina txikiak argazkiak aterako ditut, eta ordaintzen ez badigu, Madril guztia argazkiz josiko diot.

ARGI ITZALTZEA

HIRUGARREN AGERRALDIA

Dekoratu berdina. Pertsianak itxita daude. Jaimek kurpilekiko silan deskantsatzen du erdilo. Fondoko musika entzuten da. Laster Karmen sartzen da isilka, pertsiana irekitzen ari da ahalik eta hots txikiena ateraz, bapatean leihoak kirrinka egiten duen arte, Jaime asaldatur. Karmenek telefonoa deskolgatuta utzita zeukan ez molestatzeko.

KARMEN: Sentitzen dut, ez zintudan esnatu nahi.

JAIME: Ez dio axolarik. Ze ordu da?

KARMEN: Bostak.

JAIME: Ordu erdia bakarrik falta da.

KARMEN: Horregatik ireki dut pertsiana. Lehenago etorriko dela esan du Adrianak, beraz ez da asko luzatuko.

(TELEFONOA ONDO UZTEN DU ETA BEREHALA JOTZEN DU)

KARMEN: (TELEFONOAN) Bai? Ez, neskaxa, konfunditu egin zara. Nola etorriko da ba hona Julio Galloso! Ameriketara egongo da hemen nire senarra eskolako maixua eta biok bizi gara. (TELEFONOA UZTEN DU)

JAIME: Katedratiko esazu ba gutxienez.

KARMEN: Baina horrek zer axola dio, telefonoa deskolgatuta eduki ez banu, ogibideak faltako zitzaizkigun denei erantzuteko. Zerbait hartu nahi duzu?

JAIME: Ez dakit ezta goserik badaukadan ere.

KARMEN: Ba jan yoghurt bat bakarrik jan duzu.

JAIME: Orduan, fruta pixka bat ekar iezadazu, platanoa eta sagarra.

(KARMEN SUKALDEAN SARTZEN DENEAN
TELEFONOAK BERRIRO JOTZEN DU)

KARMEN: (OFF-EN) Aspertuko dira, bai.

JAIME: Ez baduzu hartu behar, deskolgatuta uztazu, txirrin horrek urduri ipintzen nau.

(PLATEREAN PLATANOEA ETA SAGARRA
DITUELA ITZULTZEN DA KARMEN.
TELEFONOA DESKOLGATZEKO PLATERA UZTEN DU)

KARMEN: Bai? ez emakumea, Julio Galloso ez dator ba oraintxe arte eskolako maixua eta etxeakoandrea ginen, baina zaude pixka bat. (AURIKULARRA ESTALTZEN DU) Zuri zer gustatuko litzaizuke izatea?

JAIME: Oraintxe bertan txirrindularia.

KARMEN: (TELEFONOZ) Nire senarra txirrindularia da eta ni etxeakoandrea ez horregatik.
DESKOLGATUTA UTZIKO DUT.

JAIME: Ziur al zaude hori dela Adrianak nahi duena zuk esatea?

(ATEKO TXIRRINAK JOTZEN DU)

KARMEN: (IREKIZ) Pentsatzen nuen zu izango zinela.

(ADRIANA SARTZEN DA)

ADRIANA: Kaixo, zer moduz zaude? (JAIMERI)

KARMEN: Nola nahi duzu, ba, egotea, urduri.

JAIME: Ba dakizu iritsi den?

ADRIANA: Gaur goizetik dago Madrilen, baina nire aholkuak jarraituz beste izen batekin egin du bidaia eta nik duela ordu bete arte ez diot inori ezer esan. Nahiko denbora kalea jendez betetzen joan dadin.

KARMEN: Etzaidazu esan. (LEIHOA IREKI ETA JENDEAREN AHOTSAK ENTZUTEN DIRA)

AHOTSAK: Julio!.. Julio!... Julio!

(LEIHOA IXTEN DU)

JAIME: Puntualea izango al da?

ADRIANA: Hala izan ohi da, horixe du bere doai bakarrenetako bat. Dena dela hotelera deituko dut. (ZENBAKI BAT MARKATZEN DU)... Ritz Hotela?, Galloso Jaunarekin mesedez barkatu, ez nintzen konturatzen. Eta Suarez Jauna?... eskerrik asko. Irten dira. (TELEFONOA UZTEN DU)

KARMEN: Azkenean irentsi egin behar izan du.

ADRIANA: Etzazu hartu garaipen pertsonal bat bezala. Norberak berari komeni zaiona egiten du. Aireportuko gertaera hartan ez zen komeni zure senarra ikustea, orain ordea beharrezkoa du, baina hemen ez dago ordainik. Bihar egunkari guztietan agertuko da Julio Gallosok, hegazkinei dien beldurra gaintuz, Jaime Polanco bisitatzeko bakarrik egin duela bidaia, nahi gabe hainbeste kalte egin zion gizona ikusteko. Horrekin zorra ordainduta geldituko da.

KARMEN: Hain erraz?, begira ezazu nola dagoen nire senarra.

ADRIANA: Eta dirua?

JAIME: Ez dago dirurik ni pasatzen ari naizena ordaintzeko haina.

ADRIANA: Hala izango da, baina gozagarri izango zaizu. Ez zaitetz zoroa izan eta aberatsa izateko azken aukera hau aprobeitza ezazu.

KARMEN: Oraindik ibiltzen hasten deneko erreportaiak gelditzen zaizkigu.

ADRIANA: (ALGARAKA HASTEN DA) Oker zaude, hori albiste on bat izango da, eta albiste onak ez zaizkio inori interesatzen. A, aizu, lehengo batean zure anaiak deitu zidan.

KARMEN: Eta zer nahi zuen.

ADRIANA: Elkarrekin kopa bat hartzea.

KARMEN: Julio joan bezain laster bere emazteari deituko diot, ikusiko duzu nola ez zaituen gehiago molestatuko.

ADRIANA: Ez zaituz arduratu, ezetz esan nion.

JAIME: Ez al da asko luzatzen ari?

ADRIANA: Julio puntuala da, baina autotik irten aurretik kalea jendez bete arte itxarongo du.

(KARMENEK LEIHOA IREKITZEN DU BERRIRO)
(LEHEN BAINO AHOTS UGARIAGO ENTZUTEN DIRA)

AHOTSAK: Julio!.. Julio! Julio!!!

(KARMENEK ESKUEKIN AGUR EGITEN DIE)

ADRIANA: Ez zaituz tuntuna izan! Guk ez dakigu datorrenik.

KARMEN: Baina poza ematen dit guregatik etorri direla jakiteak.

ADRIANA: Ez gaitzabela ikusi, eta badakizue. Ni zuekin egotea kasualitate hutsa da.

KARMEN: Ba kaferik ez daukat.

ADRIANA: Irudimena falta zaizu, ahaztu ezazu liburu bat idaztearena esan nizuna.

JAIME: Platanoa jan al nezake?

KARMEN: Etzaidazu esan orain gosea sartu zaizula.

(PLATANOA ZURITU ETA AHORA EMATEN DIO)

KARMEN: (UME BATI HITZEGINGO BALIO BEZALA) Ona al dago? Kiloa hirurehun peza ordaindu dut.

ADRIANA: (TRUFATUZ) Prezio horrekin beste erreportaia bat saldu beharko duzu.

KARMEN: Bai, noski, ez dakizu nola dagoen dena... (BIEI BEGIRA GERATZEN DA) Badakizue zer esaten dizuedan?, ez dizuedala ezer ulertzen, badirudi batzuetan algebra hitzegiten duzuela.

(LEIHOAK ITXITA EGONAGATIK
ISKANBILA HANDIA ENTZUTEN DA)

AHOTSAK: Julio! ... Julio!... Julio!

ADRIANA: Hortxe daude..

(KARMENEK URDURITASUN HORRETAN
PLATANO AZALA JAIMEREN ONDOAN UZTEN DU)

KARMEN: Disimuloz begiratuko al dut?

ADRIANA: Ez da beharrezkoa, zaratagatik antzematen da iritsi dela. Karmen, batez ere atea zaindu ezazu ondo kazetaririk sar ez dadin.

KARMEN: Eta sartu nahi badute?, zer egingo dut.

ADRIANA: Zeuk ikusiko duzu, beste kazetariren bat sartzen bada, ez duzu duro bat ere ikusiko. Esklusiba honek sorpresa bat izan behar du.

(KARMEN SUKALDEAN SARTU ETA
ERRATZ KIRTEN BATEKIN ATERATZEN DA)

ADRIANA: Jakin al liteke zertarako daramazun hori?

KARMEN: Erasotzen banaute, neure burua defenditu egin beharko dut.

ADRIANA: Periodistengandik defenditzeko tanke bat beharko zenuke.

(ATEA BORTIZKI JOTZEN DUTE,
ESKILARETAN ZALAPARTA HANDIA ENTZUTEN DEN BITARTEAN)

KARMEN: (TXANOGORRITXUREN AHOTSEZ) Nor da?

JULIO: (OFF-EN) Ireki nahi al duzue? Zanpatu egingo gaituzte!

ADRIANA: Horixe da Julio.

KARMEN: Eta zer egingo dut?

ADRIANA: Zer egingo duzu ba, ireki!

KARMEN: Eta denok zapaldu gaitzatela?

(BERRIRO ATEA JOTZEN DUTE)

ADRIANA: Goazen. (ATE ONDORA DOAZ) Nik hemendik bultzako dut. (ATE ATZEAN IPINTZEN DA) Eta bera ez beste inori ez utzi pasatzen.

(KARMENEK ATEA PIXKA BAT IREKITZEN DU.
OIHUAK ENTZUTEN DIRA ETA
LARRI-LARRI SARTZEN DA JULIO GALLOSO)
(ARROPA ZIMURTURIK ETA ERABAT NARRATS IRISTEN DA:
ILEA NAHASTURIK ETA ARNASESTUKA)

JULIO: Hau da jendilajea, hau!

ADRIANA: Zure «fansak» dira, Julio.

JULIO: Hemen al zaude?, gero kontuak garbituko ditugu, hau ez dizut barkatzen.

(ATEA JOTZEN DUTE)

JULIO: Hortxe lehertuko al dira segapoto horiek denak!

ADRIANA: Nahiago nuke entzungo balizute.

(JAIME IKUSTEN DU)

JULIO: Jaime!... (ADRIANARI) Kamara ba al daukazu?

ADRIANA: Pixka bat apaindu beharko duzu.

JULIO: Bainugela?

KARMEN: (LELOTUTA BEZALA) Hor.

JULIO: Barkatu, Jaime. Segundu bat da.

(BAINUGELAN SARTZEN DA)

ADRIANA: (JULIORI) Ez zaitetz kezkatu, ez da sentsibilitate falta. Lanbidearen gau zak dira. Argazkietan ezin zara atera itxura horrekin.

KARMEN: Bakarrik etorri al da?

ADRIANA: Besteak jendeari eusten arituko dira. Mundu hau honelakoxea da, orain besoak behar dira, eta ahazten zaituztenean, esku batekin ere nahikoa duzu.

(URRUTIAN OIHUAK ENTZUTEN DIRA JULIORI DEITUZ.
BAINUGELAKO ATEA IREKI
ETA JULIO GALLOSO ATERA DA.
ORRAZTU ETA APAINDU EGIN DA.
SARRERAKO ATERA ITZULTZEN DA)

JULIO: (ADRIANARI) Prest zaude?

ADRIANA: Nahi duzunean.

(JULIOK LEHENGO ZEREMONIARI EKITEN DIO BERRIZ.
JAIMERENGANA HURRERATZEN DA
NABARMENKERIA GEHIEGIZ)

JULIO: Jaime!.. Nire laguna!... (HURBILTZEN DEN BITARTEAN ADRIANAK ARGAZKI PILA BAT ATERATZEN DU)

JULIO: (AHAL DUEN BEZALA BESARKATZEN DU JAIME) Oso ondo ikusten zaitut.

JAIME: Nik zu hobeto ikusten zaitut.

JULIO: Baina zer esaten duzu! Etzazu konparatu zurekin. (ADRIANARI) Zutik besarkatuta bat?

JAIME: Ez al dakizu ezin naizela zutitu?

JULIO: Barkatu, hau da burua. Baina hobeto egongo zara, ziur hobeto egongo zarela.

JAIME: Bai, orain gutxienez eserita nago, eta hitzegiten dut.

JULIO: Eta nola uste duzu ba hasi ginela besteok, txikitan hizketan eta pixkana-pixkana zutituz. Eta gero kantari...

ADRIANA: (ARGAZKI BAT ATERATZEKO) Makurtu zaituz pixka bat.

(ARGAZKIA ATERATZEKO MAKURTU EGITEN DA JULIO)

JULIO: (JAIMERI) Nor egon daiteke egun guztia deskantsatzen. Ni, berriz, ez naiz gelditzen. Gaur Akapulko, bihar Miami, eta hilero Europa. Eta hegazkin madarikatu horiek gero eta beldur gehiago ematen didate, ezin dut jasan airean zintzilik ibiltzea. Ez dakit konturatzen zaren nolako sakrifizioa egin dudan zuregatik, baina Adrianak deitu eta dena utzi nuen zu ikustera etortzeagatik. Eta orain kontaidazu gertatu zitzaizuna.

KARMEN: Baina, ez al daki ba?

JAIME: Nire emaztea da.

JULIO: Beti eduki duzu gusto ona, zerri horrek. (BI MUSU EMATEN DIZKIO) Nire lagunik onenaren emaztea ezagutzeaz pozten naiz.

KARMEN: Ni ere pozten naiz zu ezagutzeaz. (AGUR HANDI BAT EGITEN DIO)

JULIO: (ADRIANARI) Bukatu duzu?

ADRIANA: Azkenekoa hirurok.

KARMEN: (POZEZ GAINEZKA) Ni ere bai?

ADRIANA: Bai azken ikutu sentimentala zuk ipiniko duzu.

(HIRUEI ARGAZKI BAT ATERATZEN DIE)

ADRIANA: Bukatu dut.

JULIO: (AGURTUZ) Ez dakizu nolako poza hartu dudan zu ikusita.

JAIME: Azken mesede bat eskatu nahi nizuke.

JULIO: (ERLOJUA URDURI BEGIRATUZ) Azkar egitekoa bada edozer gauza.

JAIME: (KARMENI ETA ADRIANARI) Inporta al zaizue gu biok bakarrik uztea?

KARMEN: (ADRIANARI) Goazen jangelara. (BIAK ATERATZEN DIRA)

JULIO: Zuk esango duzu. (ERLOJURA BEGIRATZEN DU BERRIRO)

JAIME: Benetan, ez al zara gogoratzen zer gertatu zitzaidan?

JULIO: Broma bat zen, gizona. Nola ez naiz ba gogoratuko.

JAIME: Pozten naiz. Krudelegia irudituko zitzaidan bestela.

JULIO: Barkatu, Jaime. Ez dakizu nolako presa daukadan. Baina agintzen dizut hurrengo bidaian elkarrekin bazkalduko dugula.

JAIME: Ranpak dituen jatetxe batera eraman beharko nauzu.

JULIO: (BIZKARREKO MAITEKOR BAT EMATEN DIO) Behar baldin bada, besotan eramango zaitut.

JAIME: Gauza bat nahi nuke esatea. Kantaldian ezagutu al ninduzun? Konturatu al zinen ni nintzela?

JULIO: Nor naizela uste al duzu, elbarri bat? Noski ezagutu zintudala!

JAIME: Eta ni nintzela jakinda, montaje hura dena ametitu al zenuen?

JULIO: Eta zer nahi duzu ba. Etzidaten dena ere kontatu. Ni erretiratu egin nintzen, abestia bukatzen ari zelako, bestela nik ere besarkatuko zintudan. Gero Adriana izan zen asunto guzti hura nahastu zuena.

JAIME: Eta hori jakinda kapaz izan zinen ni borreroen eskutan uzteko, gaizkile bat bezala tratatzen uzteko.

JULIO: Etzazu exajeratu, Jaime. Gaur egun gauza horiek ez dute lehengo garrantziarik, serioegi hartu zenuen.

JAIME: Ez dakit badakizun lana galdu nuela eta nire emazteak ere ia-ia utzi ninduela.

JULIO: Baina ikusten dut itzuli dela.

JAIME: Ez dakizu zeinen bakarti egon nintzen.

JULIO: Eta nola uste duzu nagoela ni, nire lagunak interesagatik bakarrik etortzen dira. Zu etorri zintezke nirekin!

JAIME: Kurpilekiko sila honekin?

JULIO: Ez, gizona, sendatzen zarenean esan nahi dut. Egitan, Jaime, sendatu bezain laster, deitu idazu.

JAIME: Eta sendatzen ez banaiz?

JULIO: Etzaitetz ezkorra izan. (ORDUARI BEGIRATZEN DIO KEZKATI) Zerbait behar al duzu?, dirua edo beste zerbait. Halere pentsatzen dut Adriana jenio horrekin egonda, dirutan blai egongo zarela.

JAIME: Hemen etxe barruan ez naiz bustitzen eta erabat lehor nago.

JULIO: (GEZURREZKO BARRE EGINEZ) Honela gustatzen zait, umore ona ez galtzea.

JAIME: Benetan ez dakizu nola eskertzen dizudan zu etortzea, hitzegin dugunagatik ez balitz, ez nintzen lasai biziko.

JULIO: Eta gainera esan didate alaba zoragarri bat daukazula.

JAIME: Ez dut ikusi, leiho horretatik neure burua bota nuenetik.

JULIO: Eta nork esan du zeure burua bota zenuela, ordua ikustera agertu zinen leihora, eta mareo bat izan zenuen.

JAIME: Eta kurpilekiko sila batean ere ez nago.

JULIO: (EZINTASUNEZKO KEINU BAT EGITEN DU) Hori bai ezin dizudala ukatu, gizona. Orain bai joan egin beharra daukadala. Etzaitetz altxa, ez da beharrezkoa. (MAKURTU ETA BESARKADA BAT EMATEN DIO)

JAIME: Eta zure «fansak» agurtu gabe joan behar al duzu?

JULIO: Arrazoia duzu. Begira, gaurtik aurrera leiho hau ospetsua izango da.

JAIME: Bai, ez daukat zalantzarik horretaz.

JULIO: Nahiago dut hemendik agurtu, berdin izan arren, zoro horiek zenbatu egingo naute irten bezain laster. Nork esan behar zuen hau, ezta? Marina Merkanteko Kapitain baten eta etxeoandre baten semea, munduko abeslaririk ospetsue na bihurturik.

JAIME: Nik ez nuen sekula hori pentsatuko.

(JULIO GALLOSO LEIHOAN AGERTZEN DA,
IREKI ONDOREN. KALETIK EGUNDOKO
AHOTS ZURRUNBILOA IRISTEN DA)

JULIO: Dosis txikitan agertuko diet neure burua. (ESKUA BAKARRIK ATERATZEN DU) Banoa.

(ERABAT AGERTZEN DA LEIHOAN.
MOMENTU HORRETAN JAIME POLIKI-POLIKI
ZUTITZEN DA ETA HANKETATIK
HARTUZ KANPORA BOTATZEN DU)

JAIME: Pena bat da hegan egitea ez zaizula gustatzen.

(PLATANO AZALA LEIHO ONDORA BOTATZEN DU
ETA HANKAZ ZAPALTZEN DU,

GERO SILAN ESERTZEN DA BERRIRO)

JAIME: Karmen!... Adriana!

(KORRIKA SARTZEN DIRA)

KARMEN: Zer gertatzen da! Negar hotsa entzuten da.

ADRIANA: Julio non da?

JAIME: Agur egiterakoan irristatu eta leihotik erori da.

ADRIANA: (LEIHOTIK BEGIRATZEN DU ETA GERO LURRERA) Nork bota du platano azal hau?

KARMEN: Baina nik... nik mahai gainean utzi nuen... hau ezinezkoa da.

ADRIANA: Ez zaitetz kezkatu, deskuido bat izanik nahigabeko gizahilketatzat hartuko dute.

KARMEN: (IZUTURIK) Ez!

(ADRIANAK TELEFONOA HARTZEN DU)

ADRIANA: Egunkaria? Adriana del Teso naiz, Erredaktore nagusiarekin, mesedez.

(ATEAN JO TA JO ARI DIRA)
(KARMENI)

ADRIANA: Eziozu inori aterik ireki nik bukatu arte.

(KARMENEK BAIETZ ESATEN DIO IZUTUTA)

ADRIANA: Adriana naiz. Gorde iezadazu lehenengo orrialdea titular handiekin. Julio Galloso hil da Jaime Polancori egindako bisita pribatu batean, Julio Galloso abeslariak istripu larri bat izan du... (KARMENI BEGIRATZEN DIO) Abeslaria ustekabean iritsia zen bere lagunarekin zeukan eginbehar moral bat betetzeko asmoz. Gogoratuko zarete...

(TELEFONOZ HIZKETAN ARI DEN BITARTEAN,
OIHALA JAISTEN DOA...)

ANTZERKIAREN AMAIERA